

Goienka

EGUBAKOITZA • 2005.10.28 • V. urtea • 218. zenbakia • DOAN BANATZEKO

Goienka^{2a}

GOITB:
PROGRAMAZIO ETA
ERRONKA BERRIAK



BERGARA

Hitzarmena egin dute hutsik dauden etxeak merkaturatzeko /7

ANA TOLEDO/ EUSKALTZAINA

"Diglosia gainditzea eta elebitasun errealerara iristea da Euskaltzaindiaren helburua" /9

DEBAGOIENA

MCCrekiko kritiko da Ahots Kooperatibista taldea /10



IRATI AGIRREAZALDEGI

Guretik igaro da eskubideen koaderno

Eguazten eta eguenean pasatu da gure ibarretik 18/98+... taldearen Kaiera. Eskubide zibil eta politikoak denondako aldarrikatu gura ditu ekimen horrek, eta gurean atxikimendu ugari jaso ditu. Eguaztenean, Antzuolan, Elgetan eta Bergaran egon zen koaderno erraldoia. Bergaran, Mariano Ferrer kazetaria ere egon zen. Eguenean, ostera, Eskoriatzan, Oñatin, Leintz Gatzagan... eta Arrasaten. Koadernoan idatzi dutenen artean daude Inazio Lakuntza Mankomunitateko burua; ibarreko alkateak; EAJ, EA, Batasuna eta Aralarko hainbat zinegotzi eta kide; ELA eta LABeko ordezkariak; eta Jose Luis Elkoro Bergarako alkate ohia eta 18/98 sumarioan inputatueta bat. /4

ASTEKO GAIA: GARAIA ETA OÑATIKO PARKEA

Aurrera doaz teknologia parkeak

Debagoienak bi parke teknologiko eta zientifiko ditu urria ezkerre: Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunea eta Oñati, Unibertsitate eta Teknologia Hiria (CUT izenez ezaguna).

CUT proiektua Espainiako Parke Zientifiko eta Teknologikoen Elkartearen onartu berri dute, eta horrek abantaila handiak eka-

rriko dizkie CUTeko enpresei. CUT planaren barne, Ulmako bigarren lantegi bat egiten ari dira Urrutxuko maldan, eta, orain hurrengo, Mondragon Unibertsitateko campusa Ibarren ipiniko dute.

Garaia ere albiste da, eraikin nagusi berria izango duelako laster. Lanak hasita daude. /3

Bulegoa ireki dute Debagoiengan Guraso Bakarreko Familiek

Asfamogik, Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarteak, bulegoa ireki du Arrasaten. Handik, interesa duen edozein debagoiendarri eskainiko diote zerbitzua, kalitatez eta orain

arte baino gertutasun handiagoarekin. Orain dela 11 urte, familien egitura erabat aldatzen ari zela ikusita sortu zuten Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarte. /6

Ordu aldaketa



Neguko ordutegia estreinatuko dugu zapatuan: goizaldeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu gero!



FordMondeo 0Km
6.000 € aurrez ditzakezu

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

Goiztzeke pentsatuak, irauteko eginak

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

05

FERIA DE PRODUCTOS DEL CASERÍO DE ARRASATE

Azaroak **5** Noviembre

09:00 - 14:00 **Seber Altube plaza**



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak **konfiantza,**
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.

CUT planaren barne, campusa Oñatiko sarreraren ipiniko dute

Datorren urtean, biribilgune handi bat egingo dute Unibertsitatean

LEIRE KORTABARRIA

Debagoieneko parke zientifiko eta teknologikoak bultzada handia jasozten ari dira. Alde batek, Oñati, Unibertsitate eta Teknologia Hiria (CUT izenez ezaguna) delako proiektua Espainiako Parke Teknologiko eta Zientifiko Elkarteko kide onartu dute, horrek ekarriko dituen abantailekin; bestetik, Garaia Berrikuntza Guneak bi eraikin berri garrantzitsu izango ditu laster.

CUT, OÑATIRENDAKO PROIEKTUA

Oñati, Unibertsitate eta Teknologia Hiria proiektua Espainiako Parke Teknologiko eta Zientifiko Elkarteko kide onartu berri izanak bidea emango die CUTeko enpresei bai Jaurlaritzatik, bai Espainiako Gobernutik ere, dirulaguntzak jasotzeko.

CUT proiektua, ordea, parke teknologiko eta zientifiko bat baino askoz gehiago da. Hori bultzatzen ari dira, batik bat, Ulma taldea, Mondragon Unibertsitatea eta Oñatiko Udala, eta CUT Elkarte Anonimoak darama aurrera. Elkarteko kide eta Oñatiko alkate Andoni Gartzia honek dio: "Unibertsitatea eta enpresak kokatzeko gune berria izango da, eta erabilera askotako gune batzuk ere sortuko dira. Hirigintza aldetik, Oñatiko sarrera hobetu egingo dugu eta oñatiarrendako leku ireki berriak sortuko ditugu. Oro har, CUT da Garaia gunearen proiektu osagarria".

Epe luzerako proiektua da, baina zati batzuk eginda edo egiten ari dira: Ulma Handling System lantegi berria bukatuta dago, eta asmoa da Gabonen aurretik han lanean hastea; horren ondoren, Ulma Packaging Technolo-



Garaia Berrikuntza Gunearen eraikin berriak itxura hau izango du.



CUT proiektuarekin, Oñatiko sarreraren itxura aldatu egingo da.

gical Center lantegia egiten hasiak dira. Bietan ere, goi-teknologiarekin lotutako jarduerak egingo dituzte.

Hirugarren proiektua da CUTera hurbiltzea Mondragon Unibertsitateko Oñatiko campusa. Hori orain Ibarrako futbol zelai dagoen lekuan egingo dute, eta futbol zelai berria, belarrarekin, egingo dute Urrutxu goian, kanposantuaren ostean.

Hirigintza proiektu handi batek eragingo dio Oñatiko sarrerari: Unibertsitateko aldapak, zubiko bidegurutzak... dakartzaten eragozpenak kentzeko biribilgune handi bat egingo dute.

Datorren urte bukaerarako geratu izatea espero du Udalak.

Lehen epeko lan horiek 20 bat milioi euroko aurrekontua dute.

GARAIAREN ERAIKIN BERRIA

Debagoieneko beste parke zientifiko-teknologikoak, Garaiak, ere berritasunak ditu: aurrera doaz bere eraikin nagusi berriko lanak, eta 11 hilabete barru bukatuta egotea espero dute. Sei milioi euroko aurrekontua du.

Eraikin nagusiak bi planta izango ditu, zubi batek elkarri lotuta, eta 10.800 metro koadroko azalera izango du. Bere bere-

zitasuna da oso eraikin ausart eta modernoa dela arkitektura aldetik. Kristalez estalitako bi bloke dira: batean, ikerketa laborategiak ipiniko dituzte; bestean, bulegoak. Denera, 350 langilek jardungo dute han. Estetika abangoardista hori borobiltzen da euri-urarekin betetako laku artifizial batekin eta terrazadun jate-txe batekin. Ingurumena ere errespetatu gura izan da, eta gune berde handiak izango dira.

Eraikin hori Garaiairen filosofiarekin bat joango da, hots, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresen ikerketarako espazio egokiak sortzea.

CUTen helburuak

Hamar urtetik gora hartuko ditu CUT proiektuak. Epe luzerako helburu batzuk dira gaur egun Energia Portatil lantegia dagoen lekua (36.000 m²) kultura, hezkuntza edo teknologiara erabiltzea; eta, jakina, Urrutxuko maldak, enpresendako guneak izango direnak (guztira, 280.000 m² inguru; hor ezarri gura duten Oñatiko enpresek beti izango dute aukera hori.

Hor lanpostuak sortzen joango dira denborarekin; gehienak, erdi edo goi mailako prestakuntza dutenendako. Hala, adibidez, Ulma taldeak, bost urteren bueltan, gune horretan 100-200 lanpostu berri sortuko dituela aurreikusten da.

Oñatiko ekonomia, hirigintza eta hezkuntzari bultzada emateko jaio da CUT

Garaia gunearen osagarri da CUT plana, Oñatin eta oñatiarrendako sortua

Garaia guneak egoitza nagusi berria izango du, eta horretarako lanak hasi dira



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

MB ML 320 BERRIA
BMW 120 D BERRIA
BMW 320 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
BMW X3 2.0 D BERRIA
MINI COOPER BERRIA

Pablo Irizar
Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

BMW Z3 2.8 1998
BMW 316 COMPAC 2003
VW TOUAREG RS 2004
VW TOUAREG V10 2005
BMW 320 D TOURING 2003
AUDI A3 TDI 1999

Eskubide zibil eta politikoen aldeko Kaiera egitasmoa gurean izan da

Koaderno handi batean eskubideen gaineko herritarren ekarpenak jaso dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI


Eskubide zibil eta politikoen inguruko herritarren atxikimenduak jasotzeko asmoz, 18/98+ taldeak Kaiera egitasmoa ipini du abian. Hilabetez herriz herri ibiliko dute koaderno handi bat. Asteon ibarreko herrietara ekarri dute.

Iruñean ekin zion bideari 18/98+ plataformak abian jarritako Kaiera egitasmoak. Eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarrikapena modu berezian egin nahi izan dute antolatzaileek, koaderno handi batean milaka herritarren iritziak bilduta.

Asteon Debagoiengan idatzi dira Euskal Herri osoa zeharkatuko duen liburuen hainbat orri. 18/98+ taldeko Maite Aristegik esan digu Kaiera egitasmoak harrera ona izan duela gure ibarrean: "Kontuan hartuta hitzorduak aste barruan izan direla, parte-hartze nahiko handia izan dela esan genezake. Ekarpeneak ere denetariokoak aurkitu ditugu: marrazki politikak, bertsoak, esaldi originalak... Gainera, aipatzekoa da herri guztietan sortu den giroa. Uste dugu lortu dela helburua: alor askotako jendea batzea, ekitaldi zabala izatea".

Antzuolan izan zen koaderno eguazten eguerdian. Gutxi gorabehera 100 lagun gerturatu ziren plazara.

Ondoren, arratsaldean, Elgetan egin zioten harrera Kaierari. Aurreskua dantza egin zuten eta ondoren hainbat herritar gerturatu zen liburuan hitzak, bertsoak zein sinadurak lagatzera. Mankomunitateko bilera Elgetako udaletxean izan zen eguaztenean eta aukera hori aprobetxatuz ibarreko uda-



Herritarrek zein elkarte, udal, sindikatu eta enpresetako ordezkariak egin zituzten ekarpenak Kaieran.

Eguaztenean Mankomunitateko ordezkariak Elgetan egin zituzten ekarpenak

letako hainbat ordezkariak Elgetan idatzi zituzten euren mezuak.

Bergaran arratsaldean zuen hitzordua. Han ere dantzariak aurreskua egin zuten eta ondoren Enaitz Alustizak bertsoz egin

Bergaran 500 lagunetik gora gerturatu ziren Kaieran euren hitzak lagatzera

zion agurra. Bere bertso batean zuen definitu zuen Kaiera egitasmoa azken puntuan: "Izan dadila sarreran hasi eta azken puntura arte/Gizakiaren eskubideen defentsaren estandarte".

Arrasaten, besteak beste, enpresako jendearen idatziak jaso zituzten

MARIANO FERRER BERGARAN

18/98+ taldeko kide eta irrati esatari ezagun Mariano Ferrer Bergarako ekitaldian izan zen.

Kaierari buruz esan zuen erakitzte bidean den manifestua dela.

"Herri honetan ohituta gaude norbaitek testu edo manifestu bat idatzi eta jendeak bere egin eta sinatzera. Kaiera, ordea, ezberdina da. Eskatzen duguna da herritarrek izan daitezela manifestu hori egin dutenak; denok batera egin nahi dugu testua".

18/98+ taldeak gonbita egin zion jendeari: "Pentsa ezazue une batez herritar bezala dagozkigun eskubide zibil eta politikoen kontuan hartuta sumario hauen baitan dauden kasuen epaiketak berri hasiko direla".

Gaineratu zuen "sumario hau botere politikoa gizartearen duen indarraren ondorio" dela. "Argi utzi behar da sumario honetan ez direla terrorismo ekintzak epaitzen. Bileretan parte hartu duen jendea, egunkariak, enpresak daude barruan; frogarik gabe kondenatu direnak", esan zuen.

Ekitaldiaren ostean, hainbat herritarrek, elkarteetako, Udaleko zein sindikatuetaordezkariak euren ekarpenak egin zituzten Kaieran; antolatzaileen esanetan 500 inguruk.

EGUENEAN ARRASATEN

Goizean barrena, Eskoriatzan, Ariztondon, Oñatin, Gatzagan eta zenbait kooperatibatan izan zen Kaiera; arratsaldean, Arrasaten egin zuten ekitaldi nagusia. Hantxe, Jon Sarasua, Arkaitz Estiballes eta Xanti Iparragirre bertso-lariak jardun zuten erraldoien konpartsak lagunduta; Aretxabaleta ere iritsi zen. Besteak beste udaletako eta enpresetako ordezkariak idatzi zuten Kaieran.


Euskal Herrian barrena egiten diharduen ibilbidean guretik pasa ostean, Kaiera Durangora iritsiko da azaroaren 12an, eta bidea amaituko du han.



JOSE LUIS ELGORO

18/98 SUMARIOAN AUZIPERATUA

"Ekimen hau jendearen erantzuna da. Euskal Herrian oso zabalak gara. Antolatzen ditugu erakundeak asmoak bultzatzeko eta hau beste egitasmo bat gehiago da. Kaiera honetan hitz gutxitan zentzuzko zerbitu idaztea da nire asmoa".



JUAN MARTIN ELEXPURU

ARALAR

"18/98 makrosumarioa benetan gorrotagarria da. Euskal usaindarion edozeren kontrako ekintza da. Askatasun zein eskubideak zapaldu dituzte. Horren aurrean euskaldun eta demokrata sentitzen den orok idatzi behar luke Kaieran".



GERMAN MURUAMENDIARATZ

EAJ


"Ez gaude ados sumario honek daraman bidearekin eta auziperatuta dagoen jende pila horri babesa emateko modu bat da Kaiera honetan mezu bat idaztea. Eskubide guztiak errespetatzeko elkarren beharra dugu, eta elkarrekin lan eginez lortuko dugu".



XABIER ARREGI

18/98 SUMARIOAN AUZIPERATUA

"Euskal herritarroi ukatzen zaizkigun eskubide zibil eta politikoen aurrean gizarte mugimendu handi baten beharra dago. Hori da Kaieraren helburua: urratuak izan zaizkigun eskubideak berreskuratze bidean pauso bat gehiago izatea".



JUAN JOSE AZKARATE

ESK SINDIKATUA

"Kaieran Garzoni hitz batzuk idatzi dizkiot. Arazoaren muina Euskal Herriarekiko ezinikusia da. Herritarrek abian ipinitako ekimenei goitik egurra ematen diete. Hori egoera demokratikoan ezin da onartu, eta horrelako egitasmoak beharrezko dira".



DEIANE ARRIETA

Batasuneko eta gizarte mugimenduetako hainbat kidek azaldu zuten Bide Eginez eztabaida prozesua zertan den.

Bide Eginez eztabaida prozesua abiarazi du ibarrean Batasunak

Ekarpen politiko berritua egitea da prozesu horren helburu nagusia

IRATI AGIRREAZALDEGI

Batasunak Euskal Herriko herri guztietan ipiniko du abian Bide Eginez eztabaida prozesua. Debagoieneko herrietan ere hasiak dira batzarrak egiten eta herri gehienetan aurki egitekoak dira. Prozesu horren nondik norakoak azaldu ditu Batasunak.

Bide Eginez eztabaida prozesuaren emaitzarik garrantzitsuenak "Euskal Herria eraikiz ekarpen politiko berritua egitea" izango dela esan dute Batasunekoek: "Anoetan Orain herria, orain bakea gatazka konpontzeko proposamena aurkeztu genuen bezala, orain zutabe estrategiko eta eskubideen defentsa egin nahi dugu".

BI BATZAR HERRI BAKOITZEAN

Eztabaida prozesu horretan, urria eta abendua bitartean herri bakoitzean bi bilera egingo dira hiru gai nagusi lantzeko. Lehen batzarrean azken lau urteetan egindakoaren balantzea egin eta ildo politikoaren txostenaren gaineko eztabaida izango dute. "Hiru zutabe azpimarratu ditugu ildo politikoan:

*Prozesu horrekin,
zutabe estrategikoen
eta eskubideen
defentsa egin nahi
dute Batasunekoek*

gatazkaren konponbidea; biherko Euskal Herria eraikitzea gaurtik hasita; eta Estatuek Euskal Herriari egiten dioten erasoerantzutea".

Bigarren batzarrean, ildo politikoaren eztabaidan sakontzeaz gain, antolakunde eredu definituko dute; euren helburu politikoei eta egunerako ildoei heltzeko behar dutena. Ondoren, herrietako zein maila nazionalerako egiturak aukeratu dituzte.

Bergaran asteon egin dute lehen batzarra eta ibarreko beste herri batzuetan ere ipini dituzte egunak: Arrasaten azaroaren 2an; Aretxabaletan azaroaren 3an; Antzuolan azaroaren 5ean; Elgetan azaroaren 10ean.

Prozesua urtarrilean amaituko da, Nazio Biltzarra eginda.

Zabor tasak modu bateratuan igotzea adostu dute ibarreko Udalek

I.A.

Debagoieneko Mankomunitateko Udalek 2006. urtean zaborrak bildu, garraiatu eta ezabatzeko tasa berriak ipintzea adostu dute asteon egindako batzarrean.

Tasak udal guztien artean adostutakoak izango dira. Mankomunitatekoen esanetan,

"garrantzitsua da zabor tasen homogeneotasuna eskualde osoan, zerbitzua era mankomunitatean eskaintzen baita herri guztietarako irizpide bereberkin".

Mankomunitatekoen esanetan, "zabor biltzetak, garraioak eta zabortegeak ezabatzeko kostu oso handia du. Herritarrek sortutako zabor kopurua urtero igotzen

da, beraz, gastuak ere nabarmen gehitzen dira".

Batez besteko igoera hileko 0,76 eurokoa da etxebizitzetan; 6,62koa merkataritzan, 8,33koa ostalaritzan eta 15,60koa industrian. Igoeran zeresan handia izan du Sasieta zabortegea Europako zabortegei buruzko lege berrietara egokitzeak.

MCCrekiko kritiko agertu da Ahots Kooperatibista taldea

MCC barruko korronteak aurkezpena egin du

GOIENKARIA

Lau urte daramatza lanean Ahots Kooperatibista taldeak. MCC barruko iritzi korronte kritiko bezala aurkeztu du bere burua. Arrasaten egin zuen agerraldia eguaztenean.

Ahots Kooperatibista taldeak 2000. urtea ezkereratu du lanean. 100 bazkide inguru ditu eta kuota bat ordaintzen dute hilean. Besteak beste, argitaratzen dute aldizkari bat hiru hilabete behin, 900 alekoa. Eguaztenean egin zuten agerraldia Monterron jauregian.

Taldearen egitekoen artean bi aipatu zituzten: batetik, MCCko kooperatibetako lan baldintzak hobetzea; bestetik, balio kooperatiboak gaurkotzea, balio horiek

barneratuz eguneroko jardueran eta gestio planetan.

"KAPITALISMOAREN PAREAN"

Ahots Kooperatibista taldeko kideak oso kritikoak agertu ziren MCCk azkenaldian hartu duen bidearekin. Bereziki kritikatu zuten MCCk duen lan antolakuntza eta kapitalismoaren parean jarri zituzten MCCren lan eta produktibitate praktika batzuk. "Langileen artean bultzatzen dituen ezberdintasunak" ere kritikatu zituzten. Bestalde, azpimarratu zuten "kooperatibismoaren gainbehera".

Adierazi zuten aldi baterako langileak %30 direla MCCn eta, horretaz gain, Hirugarren Munduko herrietan ezartzen dituzten enpresetan ez dituztela kode etikoak behar bezala bermatzen.



XABIER URZELAI

Ahots Kooperatibista taldeko 15 bat lagunek agerraldia egin dute prentsaren aurrean.

Euskara Planaren balorazio positiboa egin du Fagorrek

Langileen %90i eragin die Euskara Plan horrek

GOIENKARIA

Fagor Etxetresna Elektrikoak Kooperatibak azken lau urteotako Euskara Planaren balorazioa egin du. Pozik daude emaitzeekin. Prozesuak 1,67 milioi euroko aurrekontua izan du eta langileen %90i eragin die.

"Arlo honetan euskal enpresa handien artean aurrerapenik nabarmenena izan dutenetakoa da Fagor". Horrelaxe dio Fagor Euskara Planaren arduradunetako batek. Pozik daude, hortaz, 2002-2005 urtealdian plan honek izan duen emaitzarekin. Planaren helburua zen langileek,

"kooperatibaren arlo guztietan, beren lana euskaraz zein erdaraz komunikatuz egin ahal izateko behar diren baldintzak lortzea".

Horretarako, "hizkuntzen errespetuan eta inguruarekiko konpromisoan oinarrituta", euskararen erabilera garatu dute, bai barne eta baita kanpo harremanetan ere. Emaitzei dagokionez, 2004ko datuei erreparatu gero, hauxe da ondorioa: %26,3ko erabilera neurtu dute barne harremanetan eta %17koa kanpo harremanetan. Barne harremanetako dokumentazioari dagokionez, %37,2ko erabilera neurtu dute eta ahozko harremanei dagokionez, %18,7koa.



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2 - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

Bulegoa ireki du Arrasaten Guraso Bakarreko Familien Elkarteak

Familien egitura erabat aldatzen ari zela ikusita sortu zuten elkarteak

IRATI AGIRREAZALDEGI/GOIATZ ARANA

Asfamogik, Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarteak, bulegoa ireki du Arrasaten. Handik, interesa duen edozein debagoiendarri eskainiko diote zerbitzua, kalitatez eta orain arte baino gertutasun handiagoarekin.

Aurrez ere eskaintzen zien Asfamogi elkarteak zerbitzua debagoiendarrei; baina, ireki berri duten bulegoari esker, ibarreko erabiltzaileek kalitatea eta gertutasuna irabaziko dituzte.

Orain dela 11 urte, familien egitura erabat aldatzen ari zela ikusita sortu zuten Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarteak. Gainera, azken urteetan, guraso bakarreko sendiak izugarri ugari direla esan zuten Asfamogioek.

ZERBITZUA GERTUAGO

Elkarteak Donostiatik egin du lan orain arte. 11 urteren ostean, ordea, Gipuzkoan barrena zabaltzeko ahaleginari ekin dio, eta gureru egin du lehen jauzia; Arrasaten ireki du bulegoa. Gema Artola Asfamogiko lehendakariaren esanetan, "urte dezente



Asfamogiko bi ordezkari, Itziar Mtnez. Apellaniz Diputazioko ordezkariarekin (eskuman).

daramatzagu elkartearen zerbitzuak eta programak Arrasaten eta bailara osoan eskaintzen. Bulego honekin, lortu nahi diren helburuak dira zerbitzua gerturatzera, eduki gehiago ematea eta eragina handitzea".

Elkarteak hainbat programa ditu guraso bakarreko familiei laguntzeko. Horietako bat lan eta gizarteratze programa da. "Lan munduko beharrak asetzen saia-

tzen gara orientazio, motibazio eta lana bilatzeko tekniken bidez. Gainera, heziketa eskaintzen diegu, batez ere geriatrico eta pertsona nagusien zainketa alorretan", esan zuen Gema Artolak.

Asfamogiren bulegoa Arrasateko pasealekuko hirugarren zenbakian dago. Egutero 10:00etatik 13:00etara eta astelehen eta martitzen arratsaldeetan 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik.

Arrakastatsuak izan dira AHTren aurkako ekimenak

Manifestazioa inoizko jendetsuenetarikoa izan da

I.A.

AHT Gelditu! Elkarlanak urrian barrena bi ekimen antolatu ditu AHTren aurkako mugimendua indartzeko: Aldarrikapen Gunea, batetik; eta Euskal Y proiektua geldiarazteko eskatuz Bilbon joan zen zapatuan egindako manifestazioa, bestetik.

Bi ekimen horien helburua izan da indar berria ematea AHTren aurka dagoen mugimendu askotariko eta zabalari.

Eusko Jaurlaritzak: AHT gelditu! Inposaketarik ez! lelopean Aldarrikapen Gunea ipini zuten bederatzi egunetan barrena Lakuan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean. Hantxe izan ziren, besteak beste, hainbat herri kaltetutako bizilagunak, Bergara eta Arrasatekoak kasu; gizarte mugimenduetako, erakunde politiko eta sindikaletako ordezkariak, AHTren aurkako asanbladak eta gazte erakundeak. Egun bakoitzean 50 lagun gutxienez.

"AHTren inposatze egitasmoak herritarren artean sortzen duen aurkako jarrera zabal eta askotarikoaren isla izan da Aldarrikapen Gunea", esan zuten ekimen horren antolatzaileek

MANIFESTAZIOA BILBON

Bestalde, Aldarrikapen Gunea egitasmoa amaitzeko, manifestazioa egin zuten joan zen domekan Bilbon.

Mila Elortza antolatzaileak esan digunez, "inoiz egin dugun manifestaziorik jendetsuenetarikoa izan da. Adin eta arlo askotako jendea izan ginen. Umeak ere tartean ziren, eta hori poztekoa da; eurak direlako etorkizunean hemen biziko direnak eta bizi kalitatearen alde egin behar dutenak ingurumena errespetatuz".

Hemendik aurrera lanean jarraituko dutela esan digu Mila Elortzak. "Une erabakigarrian gaude. Jaurlaritzak Madrili presioa egiten ari zaio, aurrekontuak onartzeko euren botoa jaso nahi badute Euskal Y proiektua onar dezaten, eta hori ez da bidezkoa. Badira gizartearen behar handiagoa duten alorrak".

"Aldarrikapen Gunea AHTren aurkako jarrera zabal eta anitzaren isla izan da"

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otorra
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo




Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



ANTZUOLA Umeendako antzerkia izango dugu bihar, zapatua, Olanan

Amama Pantxikaren altxor ezkutua! antzezlan eskainiko digu Zenbat Gara elkarteak bihar, zapatua, 18:00etan, Olanan etxe-ko aretoan. Hain justu ere, 3 eta 11 urte bitarteko umei dago bereziki zuzenduta eta sarrera izango da bi euro.

Gizakien arteko lagunkidetasuna, gure nagusiekiko begirunea eta errespetua eta mota horretako kontzeptuak helarazi nahi dizkie antzezlanak umei. Gainera, abesten eta dantzatzen dituzten 17 kantuek oso dibertigarri egiten dute saioa. /A.I.

ARAMAIO Bihar, zapatua, 30 bat artisau eta eskulangile izango dira goizean

Goiz polita antolatuta dute biharko Aramaion, Erretiratuen Eguna ospatzeko. 10:30etik 14:30ak arte, azoka, musika kalean, hamarretakoak eta erretiratuen bazkaria izango dira. Horrek guztiak jende ugari erakarri ohi du Ibarrara.

ARAMAIO ETA INGURUKOAK
Azokari dagokionez, 30 bat saltoki izango dira; erdiak Aramaioakoak. Etxean egindako ogia, eztia, gazta... salduko dituzte; baita ere taloak, ortuko produktuak, egurrarekin landutakoak, kosmetikakoak eta gozak, besteak beste. /U.M.

ELGETA Maalako parkeko lanak urtarilaren amaierara arte atzeratuko dituzte

Azaroaren amaierarako Maalako parkeko obrak bukatuta egongo zirela esan bazuten ere, Udalean baieztatutako digute lanak atzeratu egingo direla; arkitektoak esan digu urtarilaren amaierarako amaitzea dela euren asmoa. Maalan ipini duten aurre-fabrikatutako 4,35 metroko hormak nahiko zeresan sortu du. Aurreikusitakoa baino altuagoa da. Alkateak onartu egin du ikusmenari eragiten diola, baina ahalegina egingo dutela inpaktua txikitzeko lorategiak ipiniz. /I.A.



BERGARA

Hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko hitzarmena

Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuak eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak atzo sinatutako hitzarmenaren arabera, hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzeko eskuragarri izateko urratsak emango dituzte. Bergaran 700 etxebizitza inguru daude hutsik. Bizigune programa Arrasaten eta Eskoriatzan martxan dago eta Debagoien osora zabaltzea da asmoa. Helburua, esan bezala, ahalik eta etxebizitza huts gehien horien beharra dutenen eskura jartzea da. Etxebizitzak jabeen hainbat abantaila fiskal eskaintzen dituzte. Era berean, etxebizitza errentan hartzeko zenbait baldintza bete behar dira. Suredesa izango da Bizigune programa kudeatuko duena. Argibideak, www.etxebide.info helbidean edo 900 251 251 telefonoan. /E.M.

ARRASATE

Oro har, KPIren araberako igoera izango dute Udal zergek: %4

Edozelan ere, salbuespenak izango dira eta horrek piztu zituen oposizioaren (PSE-EE eta PP) kritikak.

Hain zuzen ere, sei salbuespen izango dira: Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga (OHGZ) %8 igoko dute; ura, batez beste, %5 igoko dute; zaborra %17,7; kiroldegia (Aukea) %7; hilerriko errausketa zerbitzua %15 Arrasatekoen-dako eta %17 kanpokoendako eta %17 Laubideko parkingaren tarifa igoko dute 0,50etik 0,60ra.

Hobarietarako dagokienez, Bizigune programako etxebizitzek %25eko deskontua izango dute OHGZn (PPk proposatuta). Eguzki energia baliatzeko sistemak jartzen dituzten obra berrien eraikuntzan, berriz, %30eko deskontua izango dute Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Gaineko Zergan. Eta irabazi asmo bako elkarteek %100eko deskontua izango dute Bide Publikoaren Erabilera Pribatuaren Gaineko Zergan (OVP).

OPOSIZIOAREN KRITIKAK

Ordenantzak bozkatzeko orduan, EAJk, EAK, EBk eta Aralarrek alde bozkatu zuten; PSE-EE abstenitu egin zen eta PPK kontra bozkatu zuten. Oro har, PSE-EEk eta PPK uste dute zaborraren, uraren eta OHGZren zergek gehiegizko igoera izango dutela. Eta PSE-EEk uste du errausketa zerbitzua baztertzaila dela Arrasatekoak ez direnendako, haiek gehiago ordaindu behar dutelako. PPK, berriz, uste du kanpokoaren eta arrasatearren artean alde handiagoa egon beharko lukeela errausketaren prezioari dagokionez. /U.M.

Zertzelada

Zenbait zergaren kasuan (uraren, zaborraren eta ondasun higiezinaren gainekoa), PPK eta PSE-EEk uste dute gehiegizko igoera izango dutela

OÑATI

Zaborraren tasa %17,61 igoko dute datorren urtean, eta ura, %8,75

Zaborraren gaineko zerga %17,61 igoko da datorren urtean, uraren ordainagaria %8,75 eta kirola egiteko txartel mankomunatuaren berriz, %7. Udalak onartu ditu datorren urterako ordenantza fiskalak eta hiru arlo horietan nabaritutako da igoera handiena.

Zaborraren tasa izango da gehien igoko dutena,

Debagoieneko Mankomunitatearen proposamena jarraitzea onartu du eta Udalak. Eskualde osoan zerbitzu beragatik kopuru bera ordaintzea da igoeraren arrazoiak.

Udalari ordaintzen zaizkion beste hainbat zerbitzuek %3,2ko igoera izango dute 2006an, joan den urteko KPIren igoera bera. /O.E.



Zaborraren tasa da gehien igoko dena, %17,61.

ARETXABALETA Udaltzainek Urkulu zainduko dute, hara autorik sar ez dadin

Urkulu urtegi ingurua biziberritu egin gura du Aretxabaletako Udalak, eta hainbat proiektu ditu abian. Foru Aldundiak asfaltatu egin du ibilbidea, eta orain Udalak itxi egingo du, autoak aparkalekuetaraino bakarrik sar daitezten. Auzoetako bizilagunek bakarrik izango dute giltza jarritako piboteak zabaldu eta pasatzeko. Gainera, laster, udaltzainak ibiliko dira zaintzen.

Hori guztia egin ostean, Naturgintza fundazioarekin egindako proiektua jarriko dute abian, eta lehenengo, ur bazterrak txukundu egingo dituzte. /M.A.

ESKORIATZA

Tasen igoera, Marixol Iparragirre eta autobidea, osoko bilkuran

Atzo, eguena, ohiko osoko bilkura egin zuten. Zergen igoera aztertu zuten, Ogasun batzordeak eskatuta. Zerga gehienek izango dute KPIren igoera, hau da, %4. Baina salbuespen batzuk egin zituzten: uraren, zaborraren eta kirol instalazioen gainekoak, hain zuzen.

Elizateetako ordezkari Javier Villarrek eskatu zuen 2004an osoko bilkurak hartutako erabakiak berresteko. Horrez gain, Marixol Iparragirre presoaren egoera salatzeko mozioa aurkeztu zuten, Kontzejupekin eskatuta. /I.B.

LEINTZ GATZAGA Gatzagan ehizarako 74 postu daude, eta horietako 18 dira herrikoendako

Aste barruan izan gara Gatzagako ehiztariekin, ehizaren gainean berba eginen. Gatzagarrek 18 ehizapostu dituzte euren dako, eta orain arteko uso pasea nahiko ona izan dela esan digute.

INFORMAZIO GUTXI

Hegaztien gripearen gainean ere galdetu diegu, Europako hainbat lekutan debekatu egin dutelako ehiza. Horren gainean informazio gutxi dagoela esan digute, eta ehiza denboraldia errotozko mozteko interes txikia egingo dela. /X.U.

Euskaltzain oso izendatu berri dute Ana Toledo. Juan San Martinek utzitako tokia hartu du. Duela 16 urte hasi zen Euskaltzaindiko Literatura Sailean lanean, eta jarraitu egingo du. Antzuolakoa da Ana eta Zarautzen bizi da gaur egun.

OIHANA ELORTZA

Zorionak, lehendabizi.

Eskerrik asko. Oso pozik nago. Euskaltzain guztiei eman nahi dizkiet eskerak eta esan euren esanetara nagoela Euskaltzaindiaren helburuak lortzeko: corpusaren normatibizazioa eta hizkuntzaren erabileraren normalizazioa.

Juan San Martinen tokia hartu duzu. Mendebaleko euskara entzungo da aurrerantzean ere Euskaltzaindian, ezta?

Bai. Uste dut orain arte ere beti egon dela Debarroko euskaltzainen bat: Seber Altube, Koldo Eleizalde, Juan San Martin. Bide batez, gogora ekarri gura nuke Juan San Martinen ekarpena; izan ere, Euskaltzaindiaren historia nekez uler daiteke azken 40 urte hauetan San Martinen lanik eta izenik gabe.

Orain, bi emakume zaudete Euskaltzaindian. Miren Azkaratek ere Debagoieneko sustraiak ditu, ezta?

Bai, horrela da, eta nahiz eta Donostian jaio, testigu naiz erregistroz aldatzeko gaitasun handia duela Debagoieneko norbaitekin hitz egiten hasten denean.

Zuk zeuk, etxean, zein euskalkitan egiten duzu berba?

Antzuolan, hango hizkeran egiten dut berba: etxekoekin zein lagunekin. Inolako arazorik gabe ateratzen zait, gainera, hango hizkera; pertsonaren aurpegia ikus-tea nahikoa dut erregistroz aldatzeko. Senarra, berriz, Zarauzkoa dut eta seme-alabak Donostian jaio eta Zarautzen bizi dira; beraz, etxean, Zarautzen, batuan hitz egiten dugu. Hala ere, seme-alabak Antzuolako aiton-amonak bisitatzerako doazenean, inolako arazorik gabe hitz egiten dute hango hizkeran.

Dena dela, nire euskararen oinarria Antzuolako hizkeran dago eta belarria horren arabera landuta daukat.

Euskaltzain urgazle zinen orain arte eta euskaltzain oso izendatu zaituzte urriaren 21ean. Zertan aldatuko da zure lana?

Euskaltzaindia bi sailetan dago egituratuta: Iker eta Jagon sailak. Iker Sailean dagoen Literatura batzordean 16 urtean lana egin dut eta literatura terminoen hiztegia egin dugu; hitz sarrerak ez ezik, azalpenak ere jasotzen dituen hiztegia. Orain urteurrenaren prestatzen ari gara, komeni delako gogoratzea dena delako idazlearen lana. Gipuzkoako ordezkaria naizen aldetik, Jagon Saileko sustapen batzordean nago eta horretan jarraituko dut. Horretaz gain, Euskaltzaindiak osoko bilkurak egiten ditu hilabete oro eta bilkura horrek lan bereziren bat egokitzen badit, horixe egingo dut, helburuak gogoa, betiere.

Euskaraz hitz egitea da erabileraren normalizazioaren giltza?

Hasteko, hiztunik gabeko hizkuntza, hizkuntza hila da.

Gaur egun, gizarte eleanitzean bizi gara eta naturaltasun osoz da, gainera, eleanitza. Beraz, giltza da gizarte eleanitz honetan gure eguneroko hizkuntza euskara izatea.



Ana Toledo

EUSKALTZAIN OSOA

“Euskaltzaindiaren helburua da diglosia gainditzea eta elebitasun errealerara iristea”

ANTZUOLAKO HIZKERA ETA EUSKARA BATUA

“Antzuolara noanean hango hizkeran egiten dut berba; Zarautzen eta lanean, ordea, batuan, baina belarria Antzuolako euskararen arabera landuta daukat”

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

“Normalizazioak esan nahi du zernahi eginkizunetarako, zernahi hizkuntza; Euskaltzaindiak babes akademikoa eman behar du XXI.ean euskaraz egiteko alor guztietan”

Zenbat falta da horretarako?

Zenbait tokitan ohikoa izan da euskara erabiltzea, baserri giroan eta herrietan, adibidez. Toki horietan sendotu egin behar da erabilera eta lortu behar da ez moztea gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa. Bestetik, esparruak hedatu egin behar dira, lanera, ikastetxeetara, administrazioa... Normalizazioaren bidez elebitasun errealerara heldu behar dugu. Adibidez, unibertsitatea euskaraz zein gaztelaniaz zein ingelesez.

Administrazioan, osasun arloan, justizian, besteak beste, zaila egiten da oraindik euskaraz hitz egitea. Zer egin dezake Euskaltzaindiak?

Euskaltzaindiak eman behar du babes akademikoa euskaraz hitz egiten dugunoi. Zertarako? Babes akademiko horrek babes sendoak baldin baditu, XXI. mendean lasai eta dotore euskaraz hitz egiteko alor guztietan. Normalizazioak hori esan nahi du: zernahi eginkizunetarako, zernahi hizkuntza. Azken batez, diglosia egoera saihe-

tu behar dugu, hau da, eginkizun batzuetarako hizkuntza bat erabili eta beste batzuetarako beste bat. Helburua da diglosia egoera gainditzea elebitasun errealerara iristeko.

Eta bitartean?

Azken 40 urte hauetan urrats handiak egin direla uste dut, hala nola: 1968an ortografia batuaren oinarriak jarri ziren, gaur egun inork ez du auzitan jarri eredu hori euskal gizartean. Hainbat enpresa eta kooperatibak ere euren konpromisoa erakutsi dute euskararekiko.

Kontuan izan behar da normalizazio maila ez dela berdina Euskal Herri osoan. Urrats handienak EAEn egin dira, baina Nafarroako eta Iparraldeko egoerak bestelakoak dira.

Iruditzen zaizu Euskaltzaindia gizartetik gertu dagoela?

Uste dut oso ezaguna dela euskal gizartean, itzal handia duela eta erreferentziazko erakundea dela.

Gizartearengandik hurbil dagoela ikus-teko, hiru adibide ditut orain gogoan: Euskaltzaindiak badu Jagonet izeneko zerbitzua, sarearen bitartez euskararen inguruko edozein galdera egiteko edo iritzia emateko. Bestetik, baditu ordezkariak eta hurbileko zerbitzua hobetzea dute helburu. Horrez gain, Euskaltzaindiaren zenbait ekitaldi edo urteurren Euskal Herriko hainbat herritan egin izan dituzte: irailko bilera, adibidez, Altsasun, Nafarroa Oinez zela eta, eta urrikoa, Mungian, Lauaxetaren omenaldia zela eta.

Bat baino gehiago maldizioka bakarrik gogoratzen da Euskaltzaindiarekin, araren bat edo beste aldatu duelako.

Bai, noiz edo noiz entzun dut hori ere. Hala ere, uste dut azken 40 urteetan urrats handiak egin direla, euskara baturaren erudia sendotu egin dela eta lanean segitu behar dugula, oraindik egiteko asko dagoelako. Baina asko egin da orain arte ere.

Zerk egiten dizu belarriko mina?

Ergatiboa gaizki erabiltzeak. Baita hitanoaren erabilera okerrak ere. *Ikusi dizut esateak ikusi zaitut* esan beharrean ere min egiten dit, hori ez da oraingoa.

Literaturaz orain, Ana. Nola ikusten duzu egungo euskal literatura?

Uste dut euskal idazleak azken 50 urte hauetan berebiziko ahalegina egin duela eguneratzeko. Hori oso nabarmena da kontagintzako kasuan. Baita poesian ere. Hala ere, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* da euskal poesiaren lehen lana eta harrezkero etengabe landu da. Kontagintza, narrazioa, aldiz, XIX. mendekoa da, nahiz eta orain Lazarragaren eskuizkribuan agertzen dena ikusita hiru mendez aurreratzen den.

Kontu egin behar da idazleak topo egiten zuela baserri giroan hitz egiten zuten hizkuntza batekin, horixe zela haren abiapuntua, eta kaletarren gogoeten eta nahien berri ere eman beharra zegoen. Horrek guztiak esan nahi du hiriko hizkuntza bat sortzea, hiritarrendako baliagarria izango dena. Gainera, gizarteko gaiei, jerga profesionalei eta beste hainbat erronkari ere aurre egiten jakin dio idazleak.

Eta etorkizuneko?

1940an idazten hasi zirenek idazten jarraitzen dute, baita 1950ean edo 1960an jaio zirenek ere. Eta belaunaldi berriak datoz. Harkaitz Canok, adibidez, 30 urte ditu, Euskadi saria irabazi du eta dagoeneko lan zabala du. Izugarriko erraztasuna du genero batetik bestera pasatzeko. Unai Elorriaga, Kirmen Uribe eta beste hainbat gazte ere hortxe daude. Ez dira idazleak kasualitatez, produkzio jarraikorra duten idazleak dira guztiak.

Zuk zeuk baduzu tarterik idazteko?

Literaturaz idazten dut nik, baina nirea ez da sorkuntza.

Dorsal guztiak banatuta

Itxaronzerrenda jarri dute Behobia-Donostian parte hartu nahi dutenendako

XABIER URTZELAI

Bi aste baino gehiago geratzen dira Behobia-Donostia maratoi erdirako (azaroak 13), baina dagoeneko banatu dituzte dorsalak. Ibarrean, Arrasateko Sportland eta Bergarako Lazkano dendek izan dute izenak hartzeko ardura. Joan den astean amaitu zuten lan hori.

Sportlanden 263 dorsal banatu dituzte, eta Lazkanon ere 200 dorsaletik gora. Bi denda horietan gauza bera esan digute, aurreko urteetan baino mugimendu handiagoa izan dela. Arrasaten, gainera, hainbat bitxikeria izan dituzte: "Oñatitik jende asko etorri da, eta ikustekoa da San Lorenzo auzotik zenbat jende joango den probara. Auzo hori hutsik geratuko da azaroaren 13an. Horrekin batera, Garagartzatik ere gazte koadrila osoa joango da lasterketara". Horrekin batera, baina, Asturias aldetik etorritako korrikalariak izan dituzte, baita atzeritarrak ere. Lazkanon esan digute Estatuko hainbat lekutako jendearen izena hartu dutela: "Jende asko dago hemen Madrilgo edo Valentziako korrikalarien lagun direnak, eta eurek hartzen dizkiete dorsalak".

AUKERAREN BAT

Fortuna Kirol elkarteok gaur jaso behar zituzten denda guztietan hartutako izenemateak, eta horren arabera, baliteke oraindik ere dorsal batzuk bana-



Korrikalariak proba hasi aurretik beroketa ariketak egiten.

Izena eman gura duenak 'dorsal2005@cdfortuna.com' helbidera idatzi beharko du

tzeko izatea. Horretarako, *dorsal2005@cdfortuna.com* helbidera idatzi behar da. Antolatzaileek dagoeneko itxaronzerrenda bat osatu dute, eta soberan dau-

Ayuda en Accion-ekoak ibiliko dira txipak batzen. Bakoitzagatik 0,80 euro emango diete

den dorsal horiek zerrenda hori errespetatuta banatuko dituzte.

TXIP BERRIA ESTREINATUKO DUTE
Antolatzaileek urtero izaten

dituzte buruhausteak txiparekin. Urte batzuetan gehiago, eta beste batzuetan gutxiago, baina txipa beti da albiste. Oraingo txip berria berezia izango da, erabili eta botatzekoa izango delako, ez da entregatu behar izango. Baina jakin, helmugan Ayuda en Accion elkarteok boluntarioak ibiliko direla txipak jasotzen. Txip bakoitzeko 0,80 euro emanango diete, eta diru hori Ekuadorren egiten dabilzan hainbat proiektu bultzatzeko erabiliko dute.

Kirolabur

FUTBOLA/PREFERENTEA

Mondrak bakarrik jokatu-ko du asteburuan etxean. Gordobilen mutilek Touring hartuko dute bihar Atxabalpen (16:30).

Aloña Mendik ere bihar jokatu-ko du, Azkoitian, Anaitasunaren kontra (16:30). Eta aretxabaletarrek ere bihar neurtuko dituzte indarrak Allerruren kontra, Lezon (16:00).

SASKIBALOA/M.ALKESA

Lehen Nazional mailan lider Ldago Mugarri Alkesa Arrasate Saskibaloia Taldea, Auto Escuela Alava taldearekin berdinduta. Asteburuan jokatu-ko dute lehenengo itzuliko azken norgehiagoka; hirugarren postuan dagoen Padura izango dute kontrario, Arrigorriagan (domekan, 12:15ean).

ESKORIATZA/ARETO F.

Joan den asteko hanka sartzea Jonpontzeko asmoarekin joango dira eskoriatzarrak zapatuan Astigarragara. Beti Arinen kontra etxean 3-7 galdu eta gero, Iñaki Corralen eta Antonio Regañoren mutilek Ceramicas Nogales taldea izango dute bihar kontrario (20:00).

ESKUBALOA/LEHEN T.

Domekan jokatu-ko dute Bergarak eta Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeek. Lehenak Donibaneren bisita izango du Labe-garaietan (12:15). Oñatiarrak, berriz, Urrietara joango dira (11:30). Ford Mugarri Arrasatek deskantsua hartuko du.

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Eugi - Apeztegia / Galarza V.a - Lasa III.a

Xala / Bengoetxea VI.a

Lau t'erdiko Txapelketa

Baleztena - Urberuaga / Larralde - Laskurain

- **Eguna:** igandea, urriaren 30a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.




Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com

Xabi Lekue, Iron Manean bezain ondo XTerran

X.U.

Hawaiin bi aste baino gehiago igarota, eta mundu mailako bi txapelketetan esku hartuta itzuli da Antxintxika Debagoiena Triatlói Taldeko Xabi Lekue etxera. Eguaztenean izan ginen berarekin, iritsi berri, eta bi lasterketa horien gainean egin zigun berba: "Helburu nagusia Munduko Iron Man Txapelketa egitea zen, eta uste baino hobeto amaitu nuen".

Xabi 197. sailkatu zen, bederatziratu ordu eta 34 minutuko denbora egin eta gero. Proba hori amaitutakoan, baina, astebete geroago Hawaiin bertan egin behar zuten Nissan XTerra Munduko Txapelketan hasi zen pentsatzen, proba horretan esku hartzeko ere sailkatuta zegoen-eta: "Ez nekien, baina, Iron Man probatik zelan errekuperatu behar nintzen. Lehenengo bi egunetan hankak neka-neka eginda izan nituen, eta ez nekien XTerra proban parte hartu ahal izango nuen". Joan den domekan egin zuten proba hori. Hor ere igeri, korri-



GOIENKARIA

Eguaztenean itzuli zen Xabi Hawaiitik.

Iron Man proban 197.a, eta XTerra proban 64.a; Lekue ondo aprobetxatu du Hawaiiko egonaldia

ka eta bizikletan egin behar zuten, eta trintxerpearra Iron Man probatik errekuperatuta, lasterketan esku hartu eta 64.a sailkatu zen (3:11:54): "Oso lasterketa polita izan zen, baina egia da korrika egin beharreko zatia oso gogorra izan zela, sekulako maldak igo behar izan genituelako. Proba berezia izan zen, paraje ederrean ibili ginen-eta. Itsasoan igeri egin, hondartzan zein mendian korrika egin, eta mendiko bizikletako ibilbidea ere ederra".

Xabi Lekue ezin izan du Hawaiira egindako bidaiak hobeto aprobetxatu, eta handik itzuli, Antxintxikakoari helburu berrien gainean galdetu diogu: "Egia da batzuk burua berotzen ibili zirela, XTerrako proba gehiagotan esku hartzeko. Proba horietara joateko, baina, dirua behar da, lasterketak han eta hemen egiten dituztelako. Eta hori bakarrik ez, denbora ere behar delako, eta nik lan egiten dut. Momentuz, atsedean hartzea baino ez daukat buruan, benetan".



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA

Gipuzkoa etorbidea 39, 1 C. ARRASATE
Tel.: 943 79 16 82

San Felipe Apostol
Elkarlaguntzarako Elkartean
107. urteurrena dela eta,
Zuzendaritza batzordeak
bazkideei eta herritarrei oro har
ondoan aipatzen diren aspektuen
berri eman nahi die.

1. ERAKUNDEA.

San Felipe Apostol erakundea IRABAZI ASMO GABEKO elkarte da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Departamentuan erregistratuta dago, **1898an sortu zen eta 12.700 bazkide** ditu.

2. ZERBITZUAK

- Estatu barruko lekualdatzea; heriotza gertatu den lekutik egoitza duen lekuraino.
- Hilkutxa.
- Hildakoa jantzi.
- Hainbat gestio: eskelak, mediku-ziurtagiria, epaitegia, eta abar.
- 475 euroko laguntza ekonomikoa, hainbat gastu ordaintzeko.
- 540 euro jasotzeko eskubidea, gure zerbitzua erabiltzeari uko eginez gero.

3. SARRERA KUOTAK.

40 urtera arte doan.
Adin horretatik gora KONTSULTATU.
Tel.: 943 79 16 82
Alberto Ojanguren
Kontxi Bedia

4. URTEKO KUOTAK

Titularrak 20 €
Ezkontidea 18 €
Onuradunak 9 €

Zuzendaritza batzordea

Debagoieneko kirolariak

Azaroan **ibarreko kirol taldeen** gaineko **GEHIGARRIAK** Asteleheneko Goienkariarekin

Asteleheneko Goienkaria | **GEHIGARRIAK** | Gorde egingo dituzu.

Azaroaren 7an **futbol taldeak** • Azaroaren 14an **eskubaloit taldeak**
Azaroaren 21ean **saskibaloit taldeak** • Azaroaren 28an **pilotariak**

Lau astetan dohan!

Jaso doan Asteleheneko Goienkaria lau
astez 902 36 38 51 telefonora deituta.
Gustukoa baduzu, jasotzen jarraitu ahal
izango duzu (2006. urteko abendura arte)
36 euro bakarrik ordainduta

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Produktuak 1, 2 eta 3 eurotan



Prezioak Jaten Ditu



EROSKI

Erosten jakin



Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko urriaren 28a

Kultura
eta
aisialdia



Urriaren 28tik
azaroaren 4ra

Saio berriak



16 MM

EGUAZTENA / 22:15

Euskal zinemagile baten film labur bat emango dute eta, gero, zinemagileari elkarrizketa egingo diote. Filma zelan egin zuen, filmaren ondorengoko inpresioak eta anekdotak... kontatuko ditu. Zinemaren gaineko galdeketa bat ere erantzungo du. Amagoia Lasagabasterrek aurkezten du eta aste osoan hainbat aldiz emango dute; lehenengoa, eguaztenetan.



MOTZEAN

ASTEAN BI ELKARRIZKETA / 17:30

Saio laburra da -10 minutu- eta aurkezlerik gabekoa; protagonista bakarra debagoiendarrak dira, herritarrak. Gonbidatuak bere bizitzaren, iritzien... gaineko denetarikoko galderak erantzuten ditu. Barneko elkarrizketak dira. Itxura aldetik oso modernoa da. Saio hau ibarreko guztiei irekita dago, eta GOITBk parte hartzerantz animatzen du.



BERBAIRE

MARTITZENA (22:15) ETA EGUENA (23:15)

Irrati formatuko taldeko berriketaldien formatua telebistara ekartzen du *Berbaire*-k. Astean bi saio berri emango dira: martitzenean, gai batzuk aukeratu eta horien gainean iritziak emango dituzte gonbidatuek; eguenean, berriz, gai jakin baten gainean berba egingo dute, Debagoienekoa edo Euskal Herri osokoa. Marijo Deograsiasek aurkezten du.



DIDJERIDU

EGUENA / 22:15

Gazteen gaineko ordu erdiko saioa da. Tarte finko batzuk ditu: ibarreko gazte bati elkarrizketa; Interneten gaineko erreportajea, Mainer Arregiren eskutik; Arrasateko Sexologia Zerbitzuak egindako tartea; bideo-klipa; errezeta... Aurkezlerik ez du. Astelehenean egubakoitzera eta asteburuetan ere, hainbat aldiz errepikatuko dute.

Eta berriak



BEHAZULO

EGUBAKOITZA / 21:15

Edukia eta formula aldatu egin dituzte lehendik ezaguna zen saio honetan: hala, lehen, astean albiste izan ziren hainbat gai hartzen ziren aintzat, eta baten sakontzen zuten segidan; aurten, berriz, hasieratik gai bakarra izango da berbagai. Dekoratuak ere berriak dira. Goiatz Aranek aurkezten du. Astean lau aldiz errepikatuko dute.



INFORMAZIO SAIOAK

ORDURO, LAURDEN GUTXIETAN

Laurden gutxi guztietan dago albistegi bat. Lau albistegi desberdin daude: *Gaurkoak*, 13:45ean, 10 minutukoa; albiste aurrerapena, Julen Iriondok aurkeztuta, 14:45ean, ordu laurdenekoa; bigarren albistegi labur bat, Julen Iriondorekin ere, 20:45ean; eta albistegi nagusia, Deiane Arrietarekin, 19:45ean, bi aldiz errepikatzen dena.



ILUNPEAN

EGUBAKOITZA / 22:15

Euskal Herriko jende ezaguna elkarriketatuko du Oihana Elortzak ordu erdian: politikariak, kazetariak, bertsolariak, kirolariak, aktoreak... Arlo guztietakoak. Elkarrizketen bereizgarria da pertsonaiaren aurpegi ezezagunena azaleratzen dutela, gertuko galderak direlako. Dekoratuak eta argite-riak atmosfera aproposa sortzen dute.



HARMAILATIK

ASTELEHENA / 21:15

Saio honetako berritasuna da Josu Txintxurreta errealizadoreak eta Julen Iriondo aurkezleak eman dioten itxura berria. Horrez gain, iaz bezala, Debagoieneko kirol albisteak eta kirolarietako elkarrizketak ekarriko ditu saioak, modu arinean. Ibarreko talde eta kirol diziplina guztiek dute euren tartea *Harmailatik* programan.

Uneoro dago zer ikusia GOITBn /14

05/06
DENBORALDIA

TELEBISTA/ BERRITASUNAK DEBAGOIENEN TELEBISTAN

Aukeraz betetako aroa du GOITBk

PROGRAMAZIO HOBETUA AURKEZTU DU IBARREKO TELEBISTAK. LASTER, BESTE ERRONKA BAT IZANGO DU: EMISIO DIGITALERA PASATZEA

LEIRE KORTABARRIA

Aldaketa handiko garaia da ibarreko telebistarendako, GOITBrendako. Ikasturte berrian, inoizko apustu handiena egin du programazioa hobetzeko, saio berri eta emisio ordu gehiagorekin. Bestetik, telebista digitalera aldaketa aukera handia izan daiteke GOITBrendako.

Berritasun asko aurkeztu ditu GOITBk hasi berri den ikasturtean. Hala, lau saio guztiz berri ditu, lehen GOITBn ohikoak ez ziren formatuetan eta estiloetan egindakoak: *Didjeridu*, *16 mm*, *Berbaire* eta *Motzean*. Arrakasta handiko beste lau saio eguneratu egin dituzte: albistegiak indartu egin dituzte, egunero lau saio desberdin eta 11 emanaldi egongo direlako; eta *Ilunpean*, *Behazulo* eta *Harmailatik* programak hobetu egin dituzte.

Beste saio berri batzuk ere badaude, saio txikiak, hain zuzen. Horiek ere GOITBk ekoiztutakoak dira eta 5 minutukoak dira. 14:30ean, eguraldia, burtsa, herriko zerbitzuak... batzen ditu halako saio batek; arratsaldean, Danbaka musika lehiaketako emanaldiak, aspaldiko musika talde oso ezagunen bideoklipak... ematen dituzte ordu laurdenean.

Horrez gain, Tokiko lekuko euskal telebisten elkartearen bidez, Euskal Herriko beste lekuko telebista batzuen programak emango ditu GOITBk. Euskal Telebistarekin duen elkarlanaren bidez, *Chiloe* eta *Eguzkilorre* erreportaje saioak eta *Jaun eta Jabe* umorezko telesaila ematen jarraituko dute.

Asteburuan, saioak errepikatuko dituzte eta saio bereziak emango dituzte behar denean.

Horrekin guztiarekin, GOITBko programazioak ez du etenik eguerditik gauerdia arte:



GOITBko arduradun, kazetari eta teknikariek gogo eta ilusio handiz ekin diote ikasturte berriari.

Debagoieneko bertako informazioa eta entretenimendua inoiz baino ordu gehiagotan eta, beti bezala, euskaraz jasotzeko aukera dago.

ERRONKA ETA AUKERA HANDIA

GOITBk laster aurre egingo dio beste arronka bati, telebista emisio analogikotik digitalera pasatzeari, hain zuzen. Hori derrigorrez egin beharko dute Estatuko

telebista kate guztiek eta, hemen dik urte batzuetara, gaur egungo emisio sistema, analogikoa, eten egingo da –horri deitzen zaio *itzalaldi analogikoa*. Telebista emisio sistema berria deitzen da Lurreko Telebista Digitala (LTD), eta Espainiako Gobernuak arautzen du. Horretarako legea egin du eta, horren barne, lekuko telebisten eta telebista pribatuen legeak berri egin ditu. Hori dela eta,

bi epe desberdin daude *itzalaldi analogiko*-rako: Estatuko telebistek 2010ean etengo dituzte emisioak, baina lekuko telebistek 2008an egin beharko dute hori.

Adituek uste arren epeak atzeratu egingo direla, kontua da GOITBk eta beste telebistak lehenbailehen gertatu behar dutela horretarako. Izan ere, beste epe gertuago bat ere badago: Eusko Jaurlaritzak aurre egin behar-

ko du EAEko telebistendako araua, eta hor zabalduko da emisio baimenak eskatzeko epea. Epe horretan baimena lortzen ez duten telebistek emititzeari utzi egin beharko diote lau hileko epean.

Erkidegoa zonatan banatu dute, eta zona bakoitzean lau baimen banatuko ditu Jaurlaritzak. Legeak agintzen duenez, horietako bat, gutxienez, kate

GOITB, Tokiko elkartearen sortzaile

Goiena da Tokiko elkartearen bultzatzaileetako bat. Elkarte horrek batzen ditu Hego Euskal Herriko euskarazko sei lekuko telebistak –GOITB, Xaloe (Baztan), Ttipi Ttapa (Bortzirriak eta Amalerreka), Zarauzko Telebista, Goierrri Telebista eta Urdaibai Telebista– eta Topagunea. Goienak bultzatu zuen Tokiko, datozen aldaketa handiei aurre egiteko eta euskarazko telebisten sektorea ahalik eta indartsuena izan dadin. Abantaila batzuk dira saioak trukitzea, Eusko Jaurlaritzaren eta ETBren interlokutore komun bihurtzea... eta, jakina, telebista digitalaren arronkari

aurre egitea: “Digitalean emititzeko baimenak lortu beharko dira epea zabaltzen denean. Lortu ezean, lau hilabeteetan emititzeari utzi beharko dio telebista horrek. Tokikoren bidez, lekuko telebistek indarrak batuko ditugu baimenok lortzeko”, diosku Inazio Arregik, Goienako zuzendari nagusiak.

Baimena eskatzeko epea zabalduko da Eusko Jaurlaritzak horretarako araua onartzen duen bezain laster. Aurreikusten da urte bukaerarako onartzea. Baimenak hamar urterako izango dira eta, lekuko telebisten kasuan, zonaka banatuko dira.

Cuatro, azaroan hastekoa

Hainbat atzerapenen ondoren, badirudi Cuatro, telebista kate analogiko berria, azaroaren 7an hasiko dela emititzen. Sogecable enpresak “telebista alternatiboa” egiteko asmoa du. Canal+ katea krisian dago, eta Cuatro katea antolatu du, gainerako telebisten protesta ozenekin izanda ere: ilunaldi analogikoa horren gertu dagoenean, kate analogiko berri batendako baimena eman izana Madrilek, interes politikoei egotzi diete gainerako kateek.

Hasierako programazioak izango ditu 25 saio astean. Saioren artean daude albistegiak, Iñaki Gabilondorekin; umore eta kirol saio bat, gauerako aisialdi saio arin bat eta gaueko magazine bat, saio *arrosa* bat eta arratsaldeko magazine bat. Filmik ez du emango Cuatrok.

publiko batendako izango da; esate baterako, udal baten edo udal talde baten telebista, GOITB bezala.

GOITBrendako erronka baina, aldi berean, mesedea izango da jauzi hori. Honela baloratzen du Goienako zuzendari nagusiak, Inazio Arregik: "Lekuko telebistak ez daude legezkatuta, eta bakoitzak ahal duen frekuentzian emititzen du; horrek esan nahi du une jakin baten beste norbaitek, legez, frekuentzia hori lortzen badu, guk ezin go genukeela emititu. Baina orain, frekuentzia bat legez lortzeko aukera dugu". Alde txar bat ere izan dezake aldaketak: "Estatuko kateek modu analogikoan emititzen jarraituko dute 2010 arte, eta GOITB ikusi gura dutenek deskodetzailea lehenago erosi beharko dute", gaineratzen du.

Hala ere, oro har, iritzi ona du Goienak: "Euskarazko lekuko telebistek orain lortu behar dugu merkatu digitalean sartzea; bestela, lekuko telebista esparru osoa erdal medioei utziko diegu. Baimenak 10 urterako direnez, orain lortu ezean, kanpoan geratuko gara", dio Arregik.

Euskal komunikabide batzundako, kanpoan geratzeko arriskua handiagoa izan daiteke: esaterako, Espainiako Gobernuak ez du zonalderik finkatu Nafarroako gune euskaldunen dako.

DIGITALAREN ABANTAILAK

LTD ezartzeak aldaketak ekarriko badizkie telebista kateei, ikus-entzuleek ere ederki igarriko dute; izan ere, telebista digitala da telebista ikusteko eta erabiltzeko modu guztiz berria.

Hala, honako abantailak izango ditu: orain baino kate gehia-

go jasoko dira -aurreikusten da LTD ezarri eta lehenengo boladan Estatuan doako 20 kate izango direla-, irudi eta soinu kalitate ezin hobearrekin, interferentzia barik; horrez gain, telebistaren bidez Interneten ibili eta e-postak bidali, hauteskundeetan bozka elektronikoa eman... aukera horiek eta gehiago izango dira. Internetekin lotura handia dagoelako, Europako herri batzuek, Erresuma Batuek, kasu, ADSL bidezko telebista digitalarekin saiatzen ari dira.

Inbertsio txikia eskatuko zaio ikusleari: oraingo telebista aparailuari eutsi gura diotene dekodetzailea erosi beharko dute, edo LTDraiko propio egindako telebista. Gehiago gastatzeko gertu egonez gero, ordainpeko kate asko ere izango dira aukeran.

ESTATUKO EGOERA, ORAIN

Gobernuen epeak beteko ez direla diote adituek eta merkatuak berak. TVE, La2, Tele5, Antena3 eta Canal Plus legez behartuta daude modu digitalean ere emititzeko, baina ohiko programazioa modu digitalean errepikatu besterik ez dute egiten. TVE azaroan hastekoa zen programazio berezia ematen LTDn, baina badirudi atzeratu egingo dela. TVEk zortzi programaziorako baimena izango du; Estatuko gainerako kate orokor bakoitzak, laurako. Izan ere, programazioak launaka banatzen dira, oraingo kate bakoitzeko laurako lekua izango duelako frekuentziak.

Bestetik, LTDraiko bereziki sortutako bi telebista kate daude, NetTV eta VeoTV, baina oso txikiak dira programazio, harre-ra-leku eta ordu kopuru aldetik, eta Estatuko populazioaren %3 baino ez dute hartzen.

GORKA ETXABE / GOITB-KO ZUZENDARIA

"Lehengoeikin zerikusirik ez duten zenbait saio ditugu"

GOITBn dihardu Gorka Etxabe kazetari aretxabaletarrak. Programazio berria antolatzen ibili zirenean, hura ere tartean egon zen.

Programazio berriaren leloa da GOITB irauli egin dela. Zer esan nahi du horrek?

GOITBn iraultza izan dela, buelta eman diogula programazioari, ausartagoa eta eten bako delako, eta iraultza izan dela ere edukietan eta itxuran. Hala, zenbait saio berrik ez dute lehenengo GOITBekin zerikusirik; dekoratu berriak daude...

Eten bako programazioa dago lehen aldiz...


Bai, 12:45 inguru hasten da eta gauerdia arte irauten du. Asteburuetan, saioak errepikatzen ditugu, baina saio berri batzuk ere badaude: hala, asteburu honetan, errugbi partidua bat eta Idiazabalen jokatu den bertso txapelketako saioa. Hori egiten da Tokiko sareari esker: hileroko batzartzen gara eta saioak elkarrekin banatzen ditugu.

Hala, ikasturte osoan astelehenetik egubakoitzera bitarteko programazioa finkoa izango da, guk ekoiztuta eta ETBtik jasotzen dugunarekin, baina saio bereziak ere izango dira.

Publiko berria erakarri nahi du GOITBk?

Badago ahalegin bat publiko berria gureganatzeko, bai, batez ere 16 mm eta *Didjeridu* saioekin; orain arte gure ikusle izan ez direnei zuzenduta daude saio horiek. Beste saio batzuekin -albistegiak, kirola, *Behazulo* eta halako informazio saioak...- lehenengo publikoari eutsi nahi diogu.

Etorkizunean, 12-15 adin tartekoei ere zerbait eskaini nahi diegu, eta bagabiltza horri buelta batzuk ematen.



Gorka Etxabe.

"Etorkizunean, 12-15 urte bitartekoei ere saioaren bat eskaini nahi die GOITBk"

Entretanimendu saio gehiago ere badago.

Informazioa da edozein katearen atal garrantzitsuena, eta horretan eragiten jarraitu behar dugu; hala, lehen bi albistegi genituen, eta orain, lau. Baina, bai, egia da orain arte entretanimendu saioak ez ditugula horrenbeste bultzatu, eta aurten, oreka bilatu dugu.

Debagoiendarrek parte hartzeko aukera zabalagoa izango dute. Zelan da hori?

Motzean saioaren bidez. Hor agertzeko baldintza bakarra da debagoiendarra izan eta barnebarneko galdera batzuei erantzuteko gertu egotea. Elkarrizketa asko eginda daude, baina nahi dugu debagoiendarrek hor parte har dezatela.

GOITB egiteaz gain, Goienak kanpoko erakundeendako ikus-entzunezkoak egiten jarraituko du?


Bai; Goienako Arteman agentziaren bidez, GOITBko baliabideekin lan asko egin dira, Mankomunitatearendako, Eskoriatzako Udalarendako, IKP enpresa publikoarendako... Eta horretan jarraituko du GOITBk.

GOITBk bere egoera legezkatzeko aukera izango du emisio digitalerako baimena lortzean

Modu digitalean jarduteko baimenak datorren urtean banatzekoak dira, 10 urterako

Oraindik ez dago azpiegitura egokirik

Telebista aparailu berezia edo seinale digitala deskodetzeko aparailua erosi beharko dugu lurreko telebista digitala ikusteko. Aparailu horiek hainbat katalogotan daude -deskodetzailea 100 edo 150 bat eurotan salduko ei dute; telebistek 300 euroko salneurria izango dute-, baina, oraingoz, Debagoienez ez dute merkaturik, telebista digitala atzeratu egingo delako.



Deskodetzailea.

Izan ere, telebista digitalak uste baino luzeago jo dezake: "Oraindik ez zaigu inor aparailu horietaz galdezka etorri", diote Bergarako Santos etxetresna dendan. Okerrago: errepikagailuak ez daude oraindik seinale digitalerako moldatuta. Hala, telebista-kateak gertu baleude ere, azpiegiturak ez doaz atzetik. Santos dendan aurreratzen dute: "2006an hasten badira, nahiko!"

Madrildik dirulaguntzak

Europan, Espainiako Estatua da aurreratuenetarikoa bat lurreko telebista digitala ezartzeko bidean: hala, Erresuma Batuan, mota horretako emisioa 1998an hasi zen; Suedian, 1999an; eta Espainian, 2000n. Bestetik, Lurreko Telebista Digitalaren Aldeko Elkarteak sortu da Espainian, eta gobernuari eskatu diote diruz laguntzeko telebista digitalari. Madrilek agindu die aldaketaren berri emateko kanpainak antolatuko dituela eta zerga-abantailak emango dituela, nahiz eta ez dituen horiek zehaztu. Erresuma Batuan, telebista digital sare publikoak, doakoak, dirulaguntza handiak jaso ditu; Italian, deskodetzaileak erosteko laguntzak eman ditu hango gobernuak. Badirudi Estatuan ere doako telebista digitalaren alde egingo dutela.

Urr. 28-Aza. 4

Leire Kortabarría / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxe: 943 25 05 13

DEIAK

ANTZUOLA

► **Antzuolako baserrien** gainean berba egingo du Josu Tellabide etnologo-ak egunean, hilak 3, Olanan etxean, 19:00etan.

ARRASATE

► **De la obligación de cuidar al derecho a que nos cuiden** delako hitzaldia egingo du Mari Luz Estebanek egunean, hilak 3, Emakume Txokoan, 19:00etan. ESK-k antolatzen du.

► **Eraldaketa itxaropena, Mozambikoko programa integrala** delako hitzaldia egingo du Beñat Artzadun Harremaneko kideak egunean, hilak 3, Monterronen, 19:00etan.

BERGARA

► **EHNA egiteko aukera** dago bihar, zapatua, Irizar jauregian, 11:30-13:30.

DEBAGOIENA

► **I. Debagoieneko Spinning Maratoia** egingo dute azaroaren 12an Bergaran. Lau saio izango dira, 16:00etan lehenengoa eta 19:00etan azkena. Izenematea zabalik dago azaroaren 9ra bitartean Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta eta Oñatiko kirol zerbitzuaren. Argibide gehiago, www.bergara.net edo www.debagoiena.net webguneetan.

► **Nekazal ustiapenak hobetzeko laguntzak** eskatzeko aukera dago

azaroaren 1era bitartean Deba Garaia Nekazaritza Bulegoan, Bergaran. Telefonoa da 943 76

► **El Salvadorri** laguntzeko dirua batzen dihardu Oscar Romero Elkartzasun Komiteak, Miguel Andueza bergarar domingotarra lankide duela. Andueza El Salvadorren dago, izan ere. Hiru kontu korronte zabaldu dituzte laguntza eman nahi duenarendako: Kutxan, 2101 0001 14 0004048278; Euskadiko Kutxan, 3035 0059 81 0590021346; eta Banco Guipuzcoano erakundean, 0042 0046 08 0100940620.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Jardunean dauden langileendako ikastaroak** antolatu ditu Aretxabaletako Institutuak azaroan eta abenduan. Izena emateko aukera dago institutuko bulegoan edo 943 79 79 00 telefonora deituta.

► **Eskulan tailerra** antolatu dute etzi, domeka, gaztelekura joaten diren gazteendako, 16:30etik 20:30era.

ARRASATE

► **Grafologia eta malabare ikastaroak** deitu ditu Udala Gazteria Sailak. Grafologiarena Irune Ibarrek emango du azaroaren 3tik abenduaren 1era, egunetan, 18:00-20:30; malabarena, Joseba Iglesiasek, azaroaren 9tik 30era, eguaztenero, 18:00-20:00. Izenematea zabalik dago Gazte Bulegoan (943 77 00 65; gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net). 20 euro da, 10 euro ikasle eta langabeen kasuan.

ESKORIATZA

► **Kontsumitzailea sarean** delako ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZGunean, 18:00etatik 20:00etara.

OÑATI

► **Chi kung ikastaro intentsiboa** emango du Estibaliz Diez-Caballero irakasleak azaroaren 12an, zapatua. Egun bakarreko ikastaroa da. Izena emateko, deitu 635 72 08 36 edo 943 78 36 60 telefonora.

► **Interneteko aplikazioen arloko prestakuntza** zerbitzua emango dute KZGunean. Mikroenpresetako profesionalei dago bereziki zuzenduta. Ikastaroak 2 ordukoak dira, batik bat praktikoak, eta doanekoak. Azaroaren 3an emango dute lehena. Argibide gehiagorako edo izena emateko, deitu 902 25 25 95 edo 943 71 83 20 telefonora. Bigarren zerbaki horretara deitu ere KZGuneko ohiko ikastaroetan izena emateko.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **Erretiratuen Eguna** ospatuko dute bihar, zapatua. Besteak beste, azoka handia egingo dute.

ARETXABALETA

► **1967an jaioetakoek** kinto afaria egingo dute azaroaren 19an Taberna Berri jatetxean. Aurretik, poteoa egingo dute Dagda pub irlandarrean hasita, 19:00etan. Izena emateko, jo lehenbailehen Taberna Berrira eta ipini 10 euro.

Horretarako mugaeguna duzue azaroaren 15a.

BERGARA

► **1979an jaio** eta Mariaren Lagundian D ereduari ibili zirenek afaria egingo dute azaroaren 26an Azpeitxi jatetxean. Izena emateko, 30 euro sartu behar dira Kutxako honako kontuan: 2101 0070 850125173039. Mugaeguna da azaroaren 20a.

► **1987an jaioetako** neska-mutilek batera bazkalduko dute Gabonetan, abenduaren 24an. Matxiategi tabernan batuko dira, eta izena hantxe eman behar da. Horretarako mugaeguna da azaroaren 24a.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► **Amama Pantxikaren altxor ezkutua** delako umeendako antzezlan izango da bihar, zapatua, Olanan etxean, 18:00etan, Zenbat Gara A.T. taldearen eskutik. Sarrera 2 euro da.

ARRASATE

► **Isabela Mendez** kontalari venezuelarrak ahozko narrazioak kontatuko ditu gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan, Oihulari Klown taldearen eskutik.

ELGETA

► **Pakitentzat bakarrik** delako antzezlan egingo du Txalo taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Nora hoa, neska?** delako komedia antzetzuko du Txirene taldeak gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:00etan. Protagonista da **Pepa**, senarrak utzi berri duen emakumea. Etsita dago hasieran, baina, gero, aspaldiko antzele bokazioa gogoratu eta galdutako denbora berreskuratzen hasten da.

OÑATI

► **Larru Haizetara** antzezlan egingo du Biko Teatro taldeak egubakoitzean, hilak 4, 22:30ean, eta sarrerak salgai daude kultura etxean 7 eurotan. Egunean bertan, 8 eurotan salduko dituzte.



► MUSIKA

HELL IS FOR HEROES TALDEAK DISKOA AURKEZTUKO DU BERGARAN

Erresuma Batuan sasoi berriko punk-metal talde txalotuenetariko bat da Hell is for Heroes, eta bihar, zapatua, Bergarako Jam aretoan aurkeztuko dute bigarren diskoa, *Transmit Disrupt. The Neon Handshake* estreinaldi diskoaren aldean, independenteago eta jakintsuago sumatzen zaie orain, adituen esanetan: post-hardcore estiloaren barne, emo, punk, metal edo indie soinuak bere egiten dituzte. Rock-and-roll garbia eta melodikoa, oro har. Beste disko aurkezpen batekin irekiko du gaua Disco Ensemble talde finlandiarrak. *First Aid Kit* disko berriko abestiak joko dituzte Jamen. Kritikarien esanetan, Eskandinaviako punk-rock berriko promes sendoenetariko bat dira.

Non: Jam aretoan. **Noiz:** bihar, zapatua, 20:30ean. **Sarrera:** 18,60 euro aldez aurretik, 20 txarteldegian.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



URKI

Etxez Etxeko Laguntza

Pertsona nagusiendako edo ezinduendako laguntza pertsonala eta etxeko lanetarako laguntza eskaintzen dugu

Interesatuok deitu: 685 70 06 39 telefono zenbakira



Leonor Raya Guerrero eta **Francisco Garcia Ruiz**
1965eko urriaren 31n ezkondu ziren. 40 urte pasa diren honetan etxekoek zoriondu egin nahi dituzte. Zorionak, bikote, eta urte askotarako.




Ritxar eta **Arantxi**
arrasatearrak urriaren 22an ezkondu ziren Aramaioko Andramari ermitan. Eztei-bidaian Miamira eta New Yorkera joango dira. Zorionak, eta ondo ibili. Familiakoen partetik.



David Urrutia eta **Bidatz Lasagabaster** zapatuan ezkondu dira Eskoriatzako Ibarraundi museo eskolan. Gero, Gure Ametsa jatetxean egingo dute bazkaria eta eztei-bidaian Polinesiarra joango dira. Zorionak, bikote, familiakoen eta lagunaren partetik.

HILDAKOAK

- Antonio Aizpurua Arriola.** Oñatin, urriaren 20an. 86 urte.
- Gonzalo Arregi Albizua.** Arrasaten, urriaren 21ean. 79 urte.
- Zoa Manchado De la Rua.** Oñatin, urriaren 22an. 91 urte.
- Marcos Gartzia-Etxabe Beitia.** Aretxabaletan, 24an. 93 urte.
- Pakita Ilarduia Artza.** Bergaran, urriaren 25ean. 97 urte.
- Antonia Orellana Bravo.** Arrasaten, urriaren 25ean. 81 urte.
- Francisco Moreno Blazquez.** Bergaran, urriaren 26an. 76 urte.



Aitor Barandiaran lazkaotarra eta **Leire Garai** arrasatearra urriaren 31n ezkondu dira Uribarriko elizan. Ezkon-bidaian Zeelanda Berrira joango dira. Zorionak, etxekoek eta koadrilakoek partetik!



Florencio eta **Ramon** anaiak eta **Mercedes** eta **Carmen** ahizpak 1955eko urriaren 19an ezkondu ziren. Urrezko ezteien ospakizuna urriaren 29an egingo dute Lizarran. Familiakoek partetik, zorionak!

URTEURRENA

Jose Antonio Larrañaga Urrutia

2004. urteko urriaren 24an hil zen, 64 urte zituela.

Lehen urteurrenako meza domekan, urriaren 30ean, 11:00etan, Bergarako Labegaraletako San Jose elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesus Errarte Madinabeitia

Bigarren urteurrenako meza domekan, urriaren 30ean, 12:00etan, Eskoriatzako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Ainhoa Apaolaza Rekondo

Martitzenean hil zen 2005eko urriaren 18an, 15 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko urriaren 28an.



Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)

IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	BUKAERA	ORDUTEGIA
FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila)				
• Modulua: Fabrikazio mekanikoko makinaren prestaketa eta programazioa (275 ordu)				
CNC tornuaren programazioa	40	05-aza-14	05-abe-01	17:00 - 20:30
CNC tornuaren prestaketa eta programazioa	40	05-abe-12	06-urt-12	17:00 - 20:30
• Modulua : Automatismo elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu)				
Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak	40	05-aza-21	05-abe-15	17:00 - 20:30
METAL-ERAIKUNTZAK (2. maila)				
• Modulua : Giro naturaleko soldadura (310 ordu)				
Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	05-aza-16	05-abe-20	17:00 - 21:00
METAL-ERAIKUNTZAK (3. maila)				
• Modulua : Metal-eraikuntzen irudikapena (240 ordu)				
CAD. Metal-eraikuntzen irudikapena (Solid Edge)	60	05-aza-14	05-abe-19	17:00 - 20:30
TRESNERIA ELEKTRONIKOAK (2. maila)				
• Modulua : Oinarritzko instalazioak (110 ordu)				
Etxebizitzaren eta merkataritzako lokalen barruko instalazioak	60	05-aza-14	05-abe-22	17:00 - 20:00
AUTOMOZIOA (2. maila)				
• Modulua : Ibilgailuen zirkuitu elektriko osagarriak (150 ordu)				
Eskema elektrikoak, oinarritzko sinbologia, berariazko sinbologia eta kode normalizatuak interpretatzea-Multiplexazioa	40	05-aza-21	05-abe-20	17:00 - 20:00

INFORMAZIO GEHIAGO ETA INSKRIPZIOAK: IEFPS Aretxabaleta GLHBI, Etxebarri auzoa, z/g Tfn.: 943 79 79 00





GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Laserraren gainean

Amaiari erantzuna:


Amaia, ez egin aipatu didazun depilazioa, inolaz ere; hori egin ez gero, egindako lan guztia alferrikakoa izango da. Hitz egin ezazu estetizistarekin, ziur nago konponbidea aurkituko duela.

Aurpegiko eta hanketako ile guztiak kendu nahi ditut (ahal dudanean gorputz guztikoak kenduko ditut). Ilea kentzeko bide azkarrena eta errazena zein den jakin nahi dut. Aurpegikoak kendu nahi ditut lehenengo; beraz, esan, mesedez, min handia ematen duen eta zenbat denbora behar den emaitzak ikusteko. Prezioa ere jakin nahiuko nuke eta noiz has naitekeen ere bai. Ez dut nahi denbora luzez itzaroten egon, erabakia hartuta daukat, orain egin nahi dut.

Nire lagun bati lepoan grano asko irteten zaizkio. Ilea kentzen baditu, granoek irteten jarraituko dute?

Ikali.

Aurpegiko ileak kentzea ez da arazoa. Baina ile motaren arabera, prozesua geldoa izan daiteke. Ilea kentzeko dagoen sistema bakarra Laserra da. Minik ez duzu hartzen, zona askotan ez duzu ezer sentitzen eta beste batzuetan bero pixka bat bakarrik (dena dela, bakoitzaren sentsibilitatea desberdina da, horregatik norberaren eritmoa lan egin behar da). Ilea lepoan eta aurpegian desagertzeko behar den denbora 12-15 hila-bete da. Hasieran saio bat 6-8 astetan eta ondoren saio bat 8-10 astetan (hau gutxi gorabehera da). Prezioa ezin dizut esan, aurrez ez badut zure kasua aztertu. Gauza asko hartu behar dira kontuan: ile mota, kolorea, dentsitate eta, azkenik, zein den zuretako laser egokiena.



Laserrak da aurpegiko ileak kentzeko teknika on bakarra.

Komeni zaizun ordainketa era ondorengoa da: saio batzuetan banatzen den adostutako prezio itxia. Onena izango litzateke ile asko daukazu lekuan proba bat egitea.

Zure lagunari esateko: granoak ilearen ondorioz irteten badira (normalean horrela izaten da), ilerik ez daukanean ez zaio granorik irtengo. Hori bai, ileak betiko kendu behar ditu (ez du balio argizariak kentzea, bestela, ileak irteten direnean granoak berriro irtengo dira).

Marinari erantzuna:

Zure mutil-lagunak bizarra moztu ostean aurpegia narrituta (irritatuta) izatea, ez da erabiltzen duen lozioagatik. Nire ustez, bizarra mozteak eragiten dio narritadura. Hau da nire aholkua: bizarra mozteko krema aparta erabili, gero utzi 3-4 minutu bizarra moztu aurretik. Horrela ileak bigundu egiten dira eta bizarra mozteak ez du horrenbestearaino zigortzen azala (eta gainera hobeto mozten ditu bizarrereko ileak). Ur hotzarekin garbitu ondoren, koiperik (oil free) gabeko oso hidratantea den krema bat erabili. Ziur nago emaitza onak emango dituela. Esango didazu.





Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	*Deitura		Bai zera!		Iruzur, engainu
	Lurpeko kartzela		Zalantza partikula		
	▶		▼		▼
	Sarrera oztopatu	▶			
	Argitara aterata				
Antolatu, eratu	▼	Bihi, garau	▼		Roentgen
Urtearen 9 hil		Abagunea			Ugartzun adardun
▶		▼		Pare bat	▶
				Tona	▼
Gureganatu	▶			▼	Lurrean hazia sartu
Ibar txiki					
▶				Burdina	▶
				Behar den unean	▼
Oso, erabat	▶			Kar	▶
Zeken, zikoitz				Sistema optiko	▼
▶					
Azkena eta lehena	▶			Oroipen	▶
Jadanik				Justu, neurritz	
▶		Abiatzen da	▶		Newton
		40			Neona
*Izena	▶	▼			▼
Intsektu mota					Nitrogenoa
▶				Zegoen	▶

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



HUSTUALDIA

Teodoro Osabide doktoarengana joan da:

- Hara! Arazo larria daukat txiza eta kaka egiteko.
- Tira, gizona, ez larritu. Zure edadean hori nahiko normala da eta. Esadazu zer gertatzen zaizun.

- Egunero-egunero, goizeko seietan egiten dut bietatik.

- Baina hori ez da arazoa. Zure edadean hori bedeinkazio bat da.

- Bai, zera! Ni goizeko zortzietan jaikitzen naiz!

SOR BALDA ETA SOR LOGIKA

Sor Balda (B) eta Sor Logika (L) paseoan ari zirela:

B - Iluntzen ari du eta komentutik urrundu gara.

L - Bai, ohartu al zara azken ordu honetan gizon bat segika datorrigula atzetik?

B - Bai? Zer nahi ote du?

L - Logikaren arabera bortxatu egin nahiko gaitu.

B - Jainko maitea! Gu baino azkarragoa da eta aitaren batean harrapatuko gaitu. Zer egin dezakegu?

L - Logikaren arabera, pausoa arindu.

B - Hala ere, harrapatu egingo gaitu.

L - Bai, noski! Hark ere egin zezakeen gauza logiko bakarra egin duelako, pausoa arindu.


B - Eta? Minutu batean gainean dugu!

L - Logikaren arabera banandu egin behar dugu.

Gizonak orduan, Sor Logikari jarraitu zion. Sor Balda guztiz kezkatutik iritsi zen komentura. Zer gertatu ote zen azkenean? Handik gutxira Sor Logika heldu zen.

SOLUZIOAK

N	E	Z	•	I	L	U	E
•	N	I	M	O	X	T	•
N	•	A	O	D	•	A	J
I	O	R	O	•	A	Z	•
E	L	E	Z	U	R	I	D
A	R	G	A	•	T	E	N
E	F	E	•	N	A	K	S
•	U	T	E	R	E	G	•
B	I	•	L	A	I	L	•
R	•	E	A	L	•	O	•
I	X	I	•				
Z	O	T	E	L			
•	A	•	P	•			



Urriaren 31: 062 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, urriak 31, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Urriaren 31ko sariak



- Azaroaren 4an, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **DEBAJAZZ** musika kontzerturako bi gonbidapen. (saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

EIBAR-GIJONGO SPORTING

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

061
zozketa

saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**



Oihana Corral Hernandez

Arrasate

SARIA:
ECRON MUSIKA-KATEA

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen **Gasteizko San Prudentzio** kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Ander Iturriagagoitia Aizpiri (Bergara)
- Arantza Irizar Ortuzar (Aretxabaleta)

GOITBERRIAK

Kaito Telebistak grabatutako kontzertua GOITBn

Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Musikeneko musikariek kontzertua eskaini zuten Azkoitian orain dela hilabete batzuk. Kontzertua Azkoitiko Kaito Telebistak grabatu zuen eta oraingo asteburuan GOITBk eskainiko dizue. XVI eta XVII. mendeko pieza barrokoak eta *Magnificat* pieza erromatarrak eskaini zituzten.

GOITBko langileak ikastaroak egiten ari dira Gasteizen

Adobe Premier Pro, After Effects eta Adobe Encore edizio sistemen gaineko ikastaroak egiten ari dira GOITBko zenbait langile Gasteizko Mendizabala Institutuan.








Langileen heziketan beste pauso bat eman gura izan du horrela Goiena Komunikazio Zerbitzuak enpresak. Edizio digitalaren gaineko ikastaroak dira.

Behobia-Donostia lasterketaren gaineko saio berezia

Azken urteotako ohitura-ri jarraituz, aurten ere GOITBk nahi du saio berezia eskaini Behobia-Donostia lasterketaren gainekoa.

Eta, horretaz berba egiteko dagoeneko elkartu dira Goierri Telebistako eta GOITBko ordezkariek. Aztertzen ari dira elkarlanean ekoiztea azaroan emitituko den saio berezia.


GOITBPROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA, 28	ZAPATUA, 29	DOMEKA, 30	ASTELEHENA, 31	MARTITZENA, 1	EGUAZTENA, 2	EGUENA, 3
 Arantzazuko Santutegia, 'Behazulo' saioan 21:15 Arantzazuko Santutegiaren alboan eraikitako hausnarketarako gunea izango da hizpide Iñaki Beristainekin. 13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Eguzki Lore. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:00 16mm. 23:30 Musika saioa. 23:45 Berriak.	 Maila goreneko errugbi partidua: Ordizia-Bera Bera 15:30 Espainiako ligako lehenengo mailako errugbi partidua ikusteko aukera izango da zapatu arratsaldean: Ordizia-Bera Bera. 10:55 Emisio hasiera. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:15 Berbaire. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Jazz mintegia. 15:00 MKT. 15:30 Errugbi partidua: Ordizia-Bera Bera. 17:00 Danbaka. 17:15 Erreportajea: Kirikoketa musika eta Zugarramurdi. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 20:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa 20:30 16 mm. 21:00 Behazulo. 21:30 Zera dio eta Motzean. 21:45 Ilunpean: Andoni Zubizarreta 22:15 Didjeridu. 22:45 Berbaire. 23:15 Behazulo. 23:45 Emisio amaiera.	 Bertso txapelketako kanporaketa 16:15 Bertsolaritza txapelketa jokoan da eta GOITBk orain bi aste Idiazabalen jokaturako kanporaketa eskainiko du. 10:55 Emisio hasiera. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze Beroa. 12:45 Erreportajea. 13:15 Chiloe. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetxurretik. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Bertso saioa: Idiazabalen jokaturako bertso txapelketako kanporaketa. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 20:15 Klipak. Musika bilduma. 21:30 Berbaire. 22:00 Behazulo. 22:30 Zera dio eta Motzean. 22:45 Ilunpean: Andoni Zubizarreta 23:15 Didjeridu. 23:45 Emisio amaiera.	 Ganbara Abesbatzaren kontzertua 16:15 Oñatiko Ganbara Abesbatzak Azkoitian eskainitako kontzertua izango da ikusgai astelehen arratsaldean. 10:55 Emisio hasiera. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:15 Berbaire. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Jazz mintegia. 15:00 MKT. 15:30 Ikuskizuna: Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Musikeneko zenbait musikariek Azkoitian eskainitako kontzertua. 17:00 Danbaka. 17:15 Erreportajea: Kirikoketa musika eta Zugarramurdi. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 20:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa 20:30 16 mm. 21:00 Behazulo. 21:30 Zera dio eta Motzean. 21:45 Ilunpean 22:15 Didjeridu. 22:45 Berbaire. 23:15 Behazulo. 23:45 Emisio amaiera.	 Frantziako Loira ibarrera 'Chiloe' saioan 13:15 <i>Chiloe</i> saioan Maider Eguesek Loira ibarrera eramango gaitu. Erdi Aroko edertasunarekin gozatzeko aukera izango dugu. 10:55 Emisio hasiera. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze Beroa. 12:45 Erreportajea. 13:15 Chiloe. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetxurretik. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Bertso saioa: Idiazabalen jokaturako bertso txapelketako kanporaketa. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 20:15 Klipak. Musika bilduma. 21:30 Berbaire. 22:00 Behazulo. 22:30 Zera dio eta Motzean. 22:45 Ilunpean 23:15 Didjeridu. 23:45 Emisio amaiera.	 Euskal zinerik onena, '16 mm' saioan 22:15 Euskal zinerik onena ikusteko aukera izango duzue gauean. Oraingoan, Ane Muñoz hondarribarraren <i>Basurdea</i> filma. 13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1; Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Eguzki Lore: Santuaren tirabira 15:30 M1. 15:35 Lazkao txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16mm. 18:15 Chiloe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Eguzki Lore. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm. 22:45 Albisteak. 23:00 Erreportajea. 23:30 Musika saioa. 23:45 Berriak.	 Mireia Rivera tatuaje egilea 'Didjeridu'-n 22:15 Ibarreko gazteak protagonista dira <i>Didjeridu</i> saioan. Oraingoan, Mireia Rivera tatuaje egileari elkarriketa egingo diote. 13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1; Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Chiloe. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Jaun ta jabe. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:30 Zera dio. 23:45 Berriak.

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefona: 943 71 23 95

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

Etenik gabeko programazioa | Informatiboak orduoro | Programazio berria



Sari hauetakoren bat irabazi nahi duzu?

- Asturias edo Kantabriaren egonaldia: bi lagunendako hiru egun / bi gaueko egonaldia Eroski Bidaiek agentziaren eskutik.
- TVC-Berthen telebista: 14 hazbeteko telebista. Arrasateko Hiper Eroskiren eskutik.

Txartel hau moztuta honako helbidera bidali:
GOIENA/GOITB •132 posta-kutxa • 20500 Arrasate
Saio berriaren izena:.....
Izen-deiturak:
Tel.:
Helbidea:.....
Herria: Posta-kodea:.....

Edo SMS bidez: GTB (hutsunea) SAIOA BERRIAREN IZENA 7505 zenbakira. (Deiaren prezioa 0,90+BEZ)
Baldintzak: Nahi beste txartel edo mezu bidali ahal izango dira. Txartelak jasotzeko azken eguna: azaroak 9. SMSak jasotzeko azken eguna: azaroak 11. Irabazlearen izenak azaroaren 14ko Asteleheneko Goienkaria-n kaleratuko dira. Ez dira fotokopiarik onartuko.



Ikustekoa!



EUSKAL OKELA

Kalitateak **saria** dakar

Eusko Label-dun produktuekin osatutako **12 otar**. Harategi bakoitzeko bat.



1. Jabi Altuna / Zubia harategia / ESKORIATZA • 2. Pako Lardizabal / Kortaberri harategia / ARRASATE • 3. Tarsicio Osas / Tarsicio harategia / OÑATI • 4. Bixente L. Azpilikueta / Azpilikueta harategia / ARAMAIO • 5. Miguel Azpilikueta / Azpilikueta harategia / ARRASATE • 6. Naia Azpilikueta / Azpilikueta harategia / ARRASATE • 7. Gotzon Inza / Bixain harategia / BERGARA • 8. Itziar Gabilondo / Gabilondo harategia / ANTZUOLA • 9. Ander Landaluze / Landaluze harategia / ARRASATE • 10. Agustin Garai / Garai harategia / OÑATI • 11. Jose Mari / Salegi harategia / ARRASATE • 12. Antxon Egiburu / Antxon harategia / OÑATI

Parte hartzeko moduak

- Debagoieneko Eusko Labela duten harategietan Euskal Okela erostearren emango dituzten txarteltxoak betez eta atzealdean Eusko Label produktuaren etiketa itsatsiz.
- GOIENKARIAn 2005eko urriaren 28an, azaroaren 4an eta 11n argitaratuko diren txarteltxoak moztuz eta beteta eramanda Eusko Labela duten Debagoieneko edozein saltokitara.
- Zenbat eta txartel gehiago, orduan eta aukera handiagoa saria irabazteko.

Epeak

- Parte hartzeko epea 2005eko urriaren 28tik azaroaren 11ra izango da.
- Zozketa 2005eko azaroaren 14an egingo da harategietan bertan.
- Sarituen izenak azaroaren 25ean argitaratuko dira GOIENKARIAn.
- Eusko Label-dun produktuekin osatutako 12 otar. Harategi bakoitzeko bat.



Saridunen izenak azaroaren 25ean ostiraleko Goienkarian argitaratuko dira.

HARATEGI HAUETAN SOILIK!



ANTZUOLA

- Gabilondo harategia (A)
Kalebarren 14

ARAMAIO

- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE

- Landaluze harategia (A)
Iburriatz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
Olarre 20
- Azpilikueta harategia (A)
Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
Erquin 12
- Kortaberri harategia (A)
Antxo Abarka 1

BERGARA

- Andres Mujika harategia (A)
Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
Espoloia 12

ESKORIATZA

- Zubia harategia (A)
Santa Ana 11

OÑATI

- Antxon harategia (A)
San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B)
Portu 2
- Garai harategia (A)
Maizazaren Lehena plaza 2

Izen abizenak:

EUSKAL OKELA
"Kalitateak saria dakar"

Telefonoa:

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Lurdes Umerez/ Artista

Nolako lanak egiten dituzu? Publikoak izaten dira nire lanak, kaleetan eta parkeetan jartzen dituzten eskulturak. Busto batzuk ere egin ditut.

Tamaina errealean egiten dituzu artelanak?

Normalean, bai. Bi metroko pertsonak egiten ditut, adibidez. Leioan dagoen gizonezko batek, ordea, hiru metro ditu. Horixe da orain arte egin dudana artelanik altuena.

Noiz egin zenuen lehen brontzezko eskultura?

Busto bat egin nuen duela zortzi bat urte, baina

lehen artelan publikoa duela sei urte egin nuen. Arrasateko Musakola auzoan dagoen astotxo da lehena.

Nola egin zenuen?

Lehendabizi, benetako asto bat ikusi gura nuen ondo, eta Aretxabaletako baserri batera joan nintzen. Astoa ukulituk kanpora atera zidaten hango semeek, nik hobeto ikusteko.

Detailak hartu, argazkiak atera handik eta hemendik eta lanean hasi nintzen.

Eta nondik hasten zara lanean?

Lehenengo marrazkiak egiten ditut, izango duen egitura ateratzen dut gero,

irudiak izango dituen posturak, angeluak, inklinazioa eta horrelakoak definitzeko. Gero, burdinak moztu, soldatu eta gainean poliespana eta igeltsua jarrita, irudiak izango duen bolumena ematen diot eta buztinarekin hasten naiz lanean.

Dokumentatu ere egiten zara?

Noski. Jakin behar dut ze garaitan bizi izan zen pertsonaia hura, ze arropa jantzen zuten orduan, ze egoeratan bizi zen, non egiten zuen lan, fisikoki nolakoa zen...

Non duzu tailerra?

Irudi txikiak egiten nituenean etxean bertan hasten nintzen lanean. Baina tamaina handiko lanak egiten ditut orain eta Eibarren egiten ditut. Han dago Alfa-Arte, irudiei brontzezko bainua ematen dien enpresa, eta prozesu guztia egiten dut han; bestela, nola eraman Eskoriatzatik Eibarrera bi metro

altueran duen irudi bat edo luzea den beste bat?

Nork enkargatzen dizkizu artelanak?

Udalek eta instituzioek, normalean.

Non daude zure lanak?

Elorrioren, Sopelan, Eivissan (Ibiza), Gironan, Portugaleten, Malagan, Castro Urdialesen, Eran-dion, Arrasaten...

Zer ari zara egiten momentu honetan?


Antzinako arrantze baten irudia bukatu dut oraintxe, Portugaletarako.

Eta bigarren lana?

Rafael Uharte artistarekin batera egiten ari naizen irudi bat da. Entzierro bat irudikatzen du: bederatzi zezen eta hamar korrikalari daude. Tamaina errealean egingo dugu; bi metro pasa izango du altueran.

Iruñean jarriko duzue?

Bai, 2007ko San Fermine-tan dugu jartzeko asmoa. Erronkari kaleko bukaeran jarriko dutela, zezen-plazan.



“Aretxabaletako baserri bateko astoaren kopia da Musakolako eskultura”

“Iruñean jarriko duten entzierro bat egiten ari gara orain: bederatzi zezen eta hamar korrikalari, tamaina errealean”

“Eivissan, Malagan, Sopelan, Elorrioren eta Gironan daude nire brontzezko eskulturak”

► Eskoriatza / 40 urte / Brontzezko eskulturak egiten ditu

PIPERRAUTSA

Tximinia

Ia egunero, eta iturri askotatik, esaten zaigu politikoak sendo ari direla lanean aro berriaren oinarriak adosten, zubiak berbera. Eta herritarrek begira jarri gara tximiniari, ea noiz darion lurrun zuria, adieraziz badugula denbora baterako ibilbide adostua.

Etorkizuna argitu bitartean, ordea, ez dago geldirik beste politika: interesena, negoziatzea, trukeena... Madril, jeltzaleek eta sozialistek lotu omen dute EAJren onarpena Espainiako aurrekontuei, eta hauek trukean agindu berehalakoan egingo direla abiadura handiko tren eta Pasaian kanpoko portua.

Ez dakit Pasaia, baina AHTren hasierako aurrekontua omen da 6.000 milioi eurokoa, lehengo pezetetan milioi bat milioi. Pentsa zenbaterako ematen duen dirutza horrek!

Hain zuzen, jakin berri dugu EAJ eta CiU direla, estatu osoan, diru anonimo gehien jasotzen duten alderdiak. Kasualitatez edo, bi alderdiek eman dute edo daramate 20 urtetik gora gobernuan, besteak beste, azpiegitura askoren lanak esleitu. Eta ezin dut aurrerago egin...

Baina marko politiko berriak behar badu onarpen handiagoa zaharrak izan zuena baino, areago adostu behar lirateke hipoteka itzel horiek. Zergatik ez atzeratu dena apur bat, giro hobean eta denon artean erabakitzeko?

Bestela, pentsa dezakegu tximinia dela amarru hutsa, gu entretentzeko, agintariak negoziotan ari diren bitartean.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



**Bainu altzari eta osagaiak • Hidromasaje kabinak
Manparak • Eraikuntzako materiala**

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20

